



Sarrera

Milletek kuadro ezagun batean nekazari talde bat ikusten da, soroan lanean ari dena. Angelusaren ordua da eta herriko kanpaien hotsak iristen dira sororaino urrunetik. Langileek, ezkilen dandak atzarturik, lepo makurrak tentetzen dituzte. Batzuek atsedena hartu eta mahukaren xukadera kopetera eramanaz izerdia kentzen dute; ordea, gugandik gertuen dagoen andrea urrutira so geratzen da, pentsakor.

Eguneroko beharretan buru-belarri gabiltzanok, dela eskolak eman behar ditugulako, dela auziak erabakitzen ematen dugulako eguna, nahiz txosten burutsuak edo presazko itzulpenak egiten, noizpait hartzen dugu astia eta, Milletek nekazaria nola, gu ere egunerokotasunaren lokarriak askatu eta Zuzenbidea delako langintza honen gainean hausnartzera jartzen gara.

Zer da Zuzenbidea? Nola funtzionatzen du Zuzenbideak? Hona hainbatetan norberak bere golkorako egiten dituen galdera sinpleak.

Legelari askori falta zaigun denbora hartuta, beste batzuk aritu izan dira galdera horien inguruan gogoetan. Betidanik erakarri izan baititu Zuzenbidearen fenomenoak, eta haren gainean hausnartzera jarri filosofoak, historialariak, juristak berak, eta arestian, baita soziologia lantzen dutenak ere.

Zuzenbidearen gaineko gogoeta, halabeharrez, eskola edo pentsamolde-korrante jakin batzuren baitatik egin izan da, eta egiten da egun ere. Askotan egoera historiko jakinen isla diren iritziak eta jarrerak hartu dituzten eskolak dira horiek.

Kezka horiek guztiak butzatuta, ELERIAk adituei eskatu diena izan da Zuzenbidearen gaineko gogoeten iturburuetara eraman gaitzate, Zuzenbidearen fenomenoari buruzko hausnarketa egiten duten jatorrizko testuen bila, alegia.

Gure asmoa, beraz, hemendik aurrera, denbora puska batean, aldizkari bakoitzeko Zuzenbidearen Eskola bati leku egitea da. Beti ere, Zuzenbidearen Filosofian nahiz Zuzenbidearen Historian jantzitako norbaiten eskutik. Uste dugu, ekinean, ale batzuren buruan gauza izango garela "Zuzenbidearen Klasikoen Bildumatxoa" plazaratzeko, legelari euskaldun guztien zerbitzura egon nahiko lukeena.

Bildumari hasiera emateko, Zuzenbidearen Eskola Historikoa aukeratu dugu. Pentsamendu-eskola honen gaineko argibideak, berriz, José Ignacio Lacastak ematen ditu. Lacasta doktorearen entseian Eskola Historikoaren aurkezpen hutsa baino zerbait gehiago egiten da, garbi uzten baitu berak zer nolako eragina duen Savignyren eta Iheringen pentsamoldeak gaurko egunean, eta gaurkotasan horrek berak adierazten du, beste ezerk baino hobeto, klasikoen ezagutza ezinbestekoa dela jurista on baten heziketan. Jurista euskaldunak ere, beste hizkuntza normalizatueta jazo legez, gaurko Zuzenbidea eta horren inguruko eztabaida eta hausnarketak elikatzen dituzten testuak eskura izan behar ditu bere hizkuntza propioan, hain zuzen ere, eztabaida hori euskaraz egin ahal izateko.

Adituek aukeratutako iturriak alemanez, ingelesez eta frantsesez daude. Euskaraz jartzearen erronkari, berriz, galantki egin dio aurre, gure aburuz behintzat, Koro Garmendiak.

Bukatzeko, eta José Ignacio Lacastaren eskuetan utzi aurretik, eskerrak eman nahi nizkioke Klasikoen Bilduma honen aita eta sustatzaile eraginkorra izan denari; bihoazkio hemendik nire eskerrik beroenak Gregorio Monreali.

Itziar Alkorta



Savigny eta Iheringen artean (Ez duzu Savignyren izena ahotan alferrik hartuko)

LACASTA-ZABALZA, José Ignacio*

Mendebaldeko pentsakera juridikoaren bi lan adierazgarri ditugu aurrean. Lehenengoa, Friedrich Karl von Savignyren *Eskola Historikoaren «Aldizkaria»-ren xedeaz* artikulua, 1815ean argitaratua. Bigarrena, Rudolph von Iheringen artikulua nekrologikoa, *Savigny*, Eskola Historikoaren buru zenaren heriotza zela-eta 1861ean idatzia.

Savignyri eta bere hedadura intelektualari buruz esan daiteke, gehiegikeriarako beldurrik gabe gainera, bera dela *metodologia juridikoa* garaikidearen eraikin konplexuaren oinarri edo zutabeak *jaso dituena*. Eredu kontinental ez anglosaxoniarraren *zuzenbidearen interpretazioa* egiten duen jurista orok zerbait edo asko zor dio Savignyri, nahita edo nahi gabe. Honela dio Manuel Calvo-ren *Los fundamentos del método jurídico* liburu mardul eta ongi dokumentatuak (M. Calvo, 1994, 76. or.) Savignyren funtsezko alderdi honi buruz:

“Horrela, (Savigny) irizten du «legearen interpretazioak ez daukala lengoaiaren bidez adierazten den beste edozein pentsamendurekiko inolako desberdintasunik». Interpretazioan bere osagaiak banatzerakoan sortzen dira berezitasunak, lau elementu desberdin daitezkeelarik; eta horiei guztiei esker, legean jasotako «pentsamendua» zein den igarri ahal izango da: osagai gramatikala, logikoa, historikoa eta sistematikoa”.

Dena den, Savigny ez zituen “lau interpretazio mota” bailiran ikusten, nahiz eta hori den gaur egun uste dena, baizik eta lau funtzio desberdin eta bateratuen eragiketa orojasotzaile *bakar bat* bezala.

Savignyren obrako aipatu dimentsio hermeneutikoen garrantzia zenbatekoa den adierazten dute bai jurisprudentziaren eguneroko jarduerak, bai nolana hikoak ez diren arazo juridikoei aurre egiten dien pertsona ororen zereginak. Posible da Savignyren hausnarketa osatzen saiatzea, baina funtsean bere

abiapuntua aurkituko dugu beti; adibidez, espainiar Kode Zibileko 3.1 artikuluan jasotzen dena bezala: “Arauk hitzen berezko zentzuaren arabera interpretatuko dira, kontuan izanik testuingurua, aurrekari historiko eta legegileak, eta araua aplikatu beharreko denborako gizarte errealitatea, eta, batik bat, arauen espiritu eta xedeari begiraturaz”.

Zuzenbidearen hutsuneak betetzeko edota kasu antzeko eta zail baterako *analogia*-k aurkitzeko lana hartzen duen orok jakin behar du ahalegin horri ongi baino hobeto ekin ziola Friedrich Karl von Savigny duela berrehun urte inguru.

Savignyren ikasle izandako Rudolph von Ihering, aldiz, ezagunagoa da *zuzenbidearen kritiko* bezala, eraikitzaile tekniko bikain gisa baino, arrazoi ugari medio beti bidezkoak ez izan arren. Askotan esan izan da ziurrenik ez dagoela Iheringen pentsamendurekin harremanik ez daukan gure egunotako heterodoxia juridikorik. Leopoldo Alas «Clarín» errepublikarrak borondate iheringarrari egindako goraiipamenarekin hasi, eta mugimendu anglosaxoniarrak postmodernitatean *Critical Legal Studies*-en dituen oihartzunetaraino Diego Abad de Santillán buruzagi anarkistak gaztelerara itzultitako *Der Zweck im Recht* tarteko, *antiformalismo* juridiko ororen zaindariatako bat Ihering da edo izan da ziur aski.

Baina, era berean, Ihering izan da *askatasuna* zaintzearen *zuzenbidearen formen* beharraz orri mamitsuak idatzi dituena. Formak traba izan daitezke, baina gizakien eskubideen berme juridiko izateko gai dira, eta baita gizabidearen trafikoaren martxa onerako muga inpartzial ordezkazekin ere. Hala adierazi zuen Iheringek bere *Zuzenbide Erromatarren Espiritua* zoragarrian, gaztelerara Francisco Velaz itzulia, “Revista de Occidente”-ko *Abreviaturas* bildumarako. Ortega y Gasset-ek Aldizkari espainiar famatu horretako arima izanak Iheringen hausnarketa *historikoa* oso present izan zuenez, ez zuen

* 1946an Iruñean jaioa, Zuzenbidearen Filosofiako katedraduna da Zaragozako Unibertsitatean, eta bertako irakasle da 1971z geroztik. Beste hainbat unibertsitatekin ere ari da lankidetzan: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Filosofia Ikasketen Italiar Institutua, Oñatiko Unibertsitatea, Mexikoko Unibertsitate Autonomoa, eta baita Buenos Airesko Zuzenbide Fakultatearekin ere. Idatzi dituen liburuen artean, *Hegel en España; Cultura y Gramática del Leviatán portugués* azken hau espainiar Literaturako Sari Nazionaleko finalista izan zelarik 1989an eta *Georges Sorel y su tiempo* azpimarratu beharko liriteke. Bere azken artikuluetako batzuk aipatzekotan, honakoak genituzke: *Antiformalismo jurídico “fin de siglo”, El pensamiento jurídicamente correcto* eta *Género, ambivalencia del Derecho y de su sistema penal*.

Zuzenbidearen forma formalismo edo errito liturgiko hutsatzat hartzen, gertaera gisara baizik; izan ere, "formetara atxikitzea zioen Iheringek ez da kanpoko egitate bat bakarrik, baizik eta baita garapen juridikoaren jarraitasuna ziurtatzeko joeraren ondorioa ere". Zuzenbidea bere moldaera historikoan da hori. Baina erromatarrek jurisprudentziari ematen zioten zentzu praktikoak ere formaren bide kontserbadore berdinari jarraitzen zion; "izan ere dio Iheringek ekintzen eraginkortasun juridikoan dago gakoak, judizialki behartzeko duten boterean; formarik gabeko ekintzetan ez dago indar behartzaile hori".

Egia da *formalismo juridikoa* horrela ikus daitekeela Iheringen dimentsio positiboan nahiz *Zuzenbide Erromatarren Espiritua* liburuan; kasu berdin edo antzekoetarako trataera juridiko berdina ematen zaien eta behartzeko indarra daukaten agregazio historiko jarrai bat bezala.

Iheringek *formalismo juridikoa*-ren abantaila buruz zeuzkan ideiak sakonak ditugu; autore honen aburuz, hauxe zelarik forma pentsamendu juridikoan: "berriro modu berean edo besteren batean loratu arte, ideia babesten duen azal bat" (R. Von Ihering, 1947, 292 eta 293 orr.). Zaila da ongi ulertutako formalismoaren, segurtasun juridikoaren eta askatasunaren arteko lotura kausalaren egokitasuna eta probetxu historikoa Iheringek pasarte hauetan baino hobeto defendatzea. Baina, egia esan behar bada, Ihering alderantzizkoaren sustatzaile bezala ezagutzen da: antiformalismoarena.

Iheringen *estiloak* liluratu egiten du irakurlea, eta, mende honetako iusfilosofo espainiar garrantzitsuena den Felipe González Vicén-en esanetan, bere bizitza intelektualeko garai guztietan barna izango du "sortzetiko erradikalismoa" (F. González Vicén, *Anuario de Filosofía del Derecho*, IV. liburukia, 1987, 225-248 orr.). "Bere obraren lehen fasean" bistakoa da *in radice* eraikuntza, "formalismo juridikoaren bertsiorik areagotuena izanik"; eta hurrengo *fase antiformalistan* ("kontzeptualtasun juridikoaren kritikan") argi ikus daitezke erradikalitasuna eta trufa. Ihering 1818 eta 1892 bitartean bizi izan zen, baina mende laurden batean zehar gogo bizian "kontzeptuen *jurisprudentzia*"-ren alde aritu zen, horren oinarri formalistak G. Friedrich Puchta-k finkatu zituelarik (Berlingo katedran bere ondorengo izan zenak) Savignyren ondoren. Hala eta guztiz ere, Iheringen ikuspegi metodologikoa aldatu egingo da geroago, eta, González Vicének gogorarazten duenez, "mendearen erdialdera, (Iheringen) kritika formalismo juridikorantz bultzatzen duten zio guztiek bere obran bat egiten dutela dirudi, eta, aldi berean, pentsamendu juridikoak bere ondoren jarraituko duen norantza orokorra ere adierazten du".

Aurrerantzean, Ihering formalista eta antiformalista izango da; XIX. mendea bera bezain konplexu eta aldakorra.

Edonola ere, zalantzan jartzekoak diren *kontserbadore* eta *progresista* kategoriek baliorik baldin badute, orduan Ihering "progresista" modura gelditu da etorkizunerako, eta Savigny "kontserbadore" porrokatu bezala. Eta ezin da ez bata ez bestea baieztatu, guztiz alderantzizkoa baizik, bizitzan bertan gertatzen den

bezala. Ihering, Savigny edo Eskola Historikotik gehien azpimarratzen edo interesatzen diren alderdien araberrakoa da guztia. Bata zein bestea neurtzeko *kodifikaziora* eta politika alemaniarren bateratzera joz gero biak hain lotuta egonik, Ihering izango da gizartean aurreratua, garaiko liberalismo alemaniarrekin eta herriaren borondatearekin bat egiten duena. Eta Savigny, aldiz, atzerakoa, zeren eta Iheringek hemen itzuli eta aztertuko dugun 1861eko bere artikulu nekrologikoan dioen bezala:

"Bere egoera juridikoa berrantolatzeko edota besterik gabe bere zuzenbidea kodetzeko beharra sentitzen duen aro batek bere ordezkaria Savigny izanik, baina, hala ere, zientifikoki behar adinako heldutasunik ez duela eta besoak gurutzatuta gelditzen denak, ez du bere txirotasuna aitortzen; aitzitik, gehiegizko espiritu zientifikoa du, eta aditzera ematen duena ez da pobrezia zientifikoa, pobrezia morala baizik".

Baina ez Kodea, ezta bi pentsalari alemaniar hauek bizi zireneko XIX. mendeko politika ere, ez dira autore baten obra epaitu ahal izateko proba bakar eta ukiezinak. Obra honek bere inguruabarretan politikoki izandako esanahia ez da hutsala, baina aurrean daukaguna ez da eskura dagoen materiale animiko eta intelektual bakarra. Hegel unibertsalak Iheringek baino lehen kritikatu zuen Savignyren eta Eskola Historikoaren jarrera *autokodetzaila*, honela baitzioen iragan mendeko bigarren hamarkadako azken lezioetan (G.W.F. Hegel, 1988, 283 eta 284 orr.):

"Nazio kulturadun bati edo klase juridikoari kode bat egiteko gaitasuna ukatzea, nazio edo klase horri egin dakiokkeen irainik handienetarikoa da".

Zaila da Eskola Historikoa eragindako kodeketa alemaniarren frustazioaren aurka gogor eta irmoagoa izatea (nahiz eta Hegelek Hugo kritikatzeko duen, ez Savigny). Baina inori ez zaio otuko esatea mendebaldeko demokraziaren ondare direnik Hegelen eta bere *Zuzenbidearen Filosofia*-ren orrialdeetako paragrafoetan azaltzen diren "gudaren diskurtsoa", munduan bere ziklo historikoaren bukaeran inposatzen den "printzipio germaniara", eta zuzenbidearen menpe ez dagoen baina gizakia baino gorago dagoen Estatua. Alderantziz baizik, "Berlingo harresiaren erorketa"-z eta planeta mailako merkatu askatasunaren erabateko garaipenaz geroztik antza aurkitzen garen *historiaren amaiera*-ren tesien hegeliar karrikatura arrakastatsuek adierazten jakin duten bezala.

Baina, guk dakigula, historiak ez du bukaerarik izan, eta ez dauka horrelako aurrekaririk. Hegel, Savigny edo Iheringek beren aipatu proposamenak egin zituztenerako jada jazo zen Iraultza Frantsesa, eta praktikara eramana zen bere benetako demokrazia (nahiz eta ez zen ia batere demokratikoa, eta kultura bretoi nahiz euskalduna bortxaz uniformatu izan). Hegelek "botereen banaketa"-ri agertzen zion aurkakotasuna "printzipio plebeioa" zela esan zuen, Gizakiaren eta Hiritarraren Eskubideen eraentza iraultzaile frantsesean juridikoki mugatutako boterearen aurka aldarrikatutako pentsamenduaren ondorio da. Savignyren proposamen antikodetzaila

ultrakontserbadorea izateaz gain Kode zibil frantsesa izanik bilakatu nahi ez duenaren adibide, liberalen eta herri alemaniarren sentimenduentzako kaltegarria ere bada. Iheringen ideia kodetzailea, haatik, bat dator urte haietan kulturalki onena zenarekin. Baina Bismarck (ikus 1. irudia) kantzilerrak Iheringi eta baita bere garaikide zen Lassalle ezkertiarri ezagutarazitako lilurak ez du demokraziarekiko maitasunarekin zerikusirik, *Über alles* abertzaletasun alemaniarrekin baizik, guztien eta guztiaren gainetik. Bismarcken sistema juridikoa *pseudokonstituzional* zuzenbideari menpekotuta ez dauden botereen ezaugarria (Koroa, Armada) gisa kalifika zitekeela, esan zuen Ferdinand Lassallek *Zer da Konstituzio bat?* bere liburuskua magistralean, modu guztiz konbentzigarrian (F. Lassalle, 1931).

Rudolph von Iheringek gogor kritikatu zuen langile alemaniarren buru zen Lassalle sozialista hau, *eskubide eskuratu* buruzko beste liburu bat zela-eta Savignyren metodo historikoaren espekulazio moduari jarraitzen ziona (R. von Ihering, 1987, 54-49 orr.).

Lassallek Savignyren tresna kontzeptual koipeztuak erabili izanak ez du bere izaera ezkertiar nabaria txikiagotzen (ideologia mailan, sozialismo alemaniarreko garantzitsuenetariko bat izan zen politikoki, Marx eta Engelsekin batera).

Espainiako Bigarren Errepublikan, hobekien informatuta zeuden intelektual ezkertiarrek Lassalleren aipatu liburuskako irakaspén formalista eta konstituzionalitzailea berenganatu zuten (W. Rocés, F. Lassalle, 1931, 7-14 orr.). Izan ere, Konstituziora meneratzeko benetako beharra zegoela ulertarazteko asmoz, Lassallek biziki eta krudeltasunez azpimarratu ohi zituen prusiar inperioaren garaiko *egitatezko botereak*. Baina 1978ko Konstituzioaren Espainian, Lassalleren lan honen erretorika antiformalista besterik ez da bereganatu oso akats larria, eta ez Zuzenbidezko Estatu sozial alemaniar bat eraikitzeke zeukan asmoa. Eduardo García de Enterría gailenaren ustez, Lassallek Konstituzioaren ideia bera *erasotzen* du (E. García de Enterría, 1981, 42. or.), noiz eta gizon honek, bere egiazko testuinguru historiko-politikoan, sistema politiko prusiarreko egoera antijuridikoari bukaera jarriko zion testu konstituzionaltasun baten beharra *defendatzen* zuenean. Hans Kelsenek 1924az geroztik ez zuen ez alferrik izan Lassalle Zuzenbidezko Estatuaren teoriaren prestakuntzan bere aitzindari juridiko nabarmen gisa (H. Kelsen, *Droit et Société*, 7. zkia., 1987, 333-335 eta 344-348 orr.).

Esan nahi dudana zera da: gauza bat dela autore baten pentsamendua, eta beste bat, oso bestelakoa, gero horri buruz egiten diren *interpretazioak*. Lassalleren pertzepzio konstituzionalik fidelena Kelsenena da, eta bertsiorik desleial eta aldebakarrekoena ahistorikoa izateagatik, Eduardo García de Enterríarena.

Savigny eta Iheringi Lassalleren gauza bera gertatu zaie. Savigny oinarritzko erreakzionario bat izango da jende askorentzat, Ihering zuzenbidearen lotura formalen liberalismo kritikoko *enfant terrible* nabarmengarriena bezala geldituko den bitartean.

Gai honek bere garrantzia intelektuala izaten darrai orain ere. Espainiara ez den nazionalismo ororen berezko gaiztotasuna aldarrikatzen duten gaur egungo doktrinarioen artean, horrela erabili izan da Savigny: perbertsio "populisten" eta periferiatik batik bat kataluniar eta euskaldunetik, nahiz eta eremu galiziarri ere heldu zaion eskumikuen txanda datozen "banakakoen eskubide"-en perbertsio ukatzaileen ustezko inspiratzaile intelektual gisa. Hala, José Ramón Recalde Eskola Historiko alemaniarraz baliatzen da Foru eusko-nafarren adiera hipotetikoetako bat kritikatzeko (J.R. Recalde, *Claves de la Razón Práctica*, 86. zkia., 1998, 22-30 orr.). Aurkatzen duena ez da XIX. mendearen bukaeran Arturo Campión zein Hermilio de Olóriz-ek (H. De Olóriz, 1994) azaldukoak ideia zehatzak non foralitatean gizartearen usadioak, kontzertu ekonomikoa, hizkuntza eta eskubide pribatu nahiz publikoak barnebiltzen zituzten, baizik eta Recaldek nahi duen edo legitimoki, noski *asmatu* duen foralismo abstraktua. Foruak bere modura eta probetxura txikitu ondoren, Recalderentzat foru zuzenbide pribatuak gainerako beste osagai guztien artean sakabanatu duena, nazionalismoaren muin gisa, lotura estua dauka "Savignyk, herriaren espiriturako (*Volkgeist*) eskubidean nazioaren esentzia ikusten zuenean, nazio alemaniarri ematen zion zentzuarekin".

Gauza berbera dio bere burua orain liberalizat duen Aleix Vidal-Quadras-en nazionalismo espainiarrak, *Razón o «Volkgeist»: un dilema histórico* (El País, 1998ko irailaren 21ean) idazkian. Gizon honek Savigny dakusa *Bartzelonako Aldarrikapena*-ren atzean beti tirabiratan dabilen Arzallusek, Pujol katalanak eta Xosé Manuel Beiras galiziarrek sinatu zutena; ez da, ez, gutxi. Nazionalista periferikoak Savignyren kultur programan kateatuta daude J.R. Recalderen aburuz bezala, zeren eta Vidal-Quadrasek dio "arraz, hizkuntza, *Volkgeist* zehazgabe eta erdimagikoa" eta horrelako beste irrazionaltasunen nazionalismo bat defendatzen dutela, bere nazionalismo espainiarrak "askatasuna, demokrazia, justizia eta ekitatea" aldarrikatzen dituela ziurtatzen duen bitartean. Nazionalitate periferikoetako *Volkgeist*-a "tribu" kolektiboen arima da, eta Vidal-Quadrasen nazionalismo espainiarra *Banako* sakrosantuaren edo "banakakoen oinarritzko askatasunena".

Konplexua da Recalde eta Vidal-Quadrasen *Volkgeist*-aren irudikapen bitxia, kolektibitate nazionalak gizabanakakoa autoritarioki xurgatzen dueneko. Baina filosofia juridikoak ez du sartu behar demagogia politikoan, ezta baita politikariei 1978ko Konstituzio espainiarreko "eskubide historikoak" existitzea komeni ote zaien ala ez ikusten eskubide horiek bere Xedapen Gehigarrietan, Iragankorretan eta Indargabetzailean araututa daude, eta *subjektu eratzailen* (pluralean) beste titulartasunak iragartzen dituzte, interpretazio desberdinek xedapen hauei eman nahi dizkieten interpretazioak edozein izanik ere).

Horregatik, demagogiaz gaindi, nahiko latza da Savignyren, Eskola Historikoaren eta Puchtaren *Volkgeist* kontzeptua elementu antiindibidualista batera murriztea, jibaroen burua bailitza. Hainbat kultur alderditan Kanti hain lotuta zegoen Savignyk ez zekien eta ezin zuen *gizabanakoa* guztiz alboratu. Savigny Kanten indibidualismoaren eta Hegelen

antiindibidualismoaren artean kokatzea ez da burugabea; izan ere, urte haietako filosofia germaniarra tentsio berdinarekin baitzegoen, eztabaida betean (M. Calvo, 1994, 74.or.). Biografikoki diktadura politiko eta pentsamendu totalitario guztien etsai zen Gioele Solari (Norberto Bobbio eta Renato Treves sozialisten maisuak) modu didaktiko eta ezin hobean interpretatu zuen (G. Solari, 1950, II. lib., 226-229 orr.). "Puchtarentzat, Savignyrentzat bezala", idatzi zuen Solari iturri alemaniar zuzenen hautaketa zorrotz baten bidez:

"Gizabanakoa bera da beti errealtate juridiko bakarra; taldeak ez dauka existentzia juridikorik, baina gizabanakoaren bidez bakarrik bizi eta jarduten du juridikoki".

Volkgeist-etik ondorio autoritarioak atera daitezke ("herriaren espirituaren ikusmolde inmanente eta garrantzitsua" dio Solari "historiaren beraren subjeto bezala pentsatuta"), baina baita herri langilearen aldekoak ere, honek "zuzenbidearen gizarte zentzua eralda baitzezakeen".

Eta hori ez da Solari zorrotzaren amets bat, baizik eta gizabanakoak Zuzenbidearekin daukan lotura askaezina eta jabetza pribatuaren gizarte muga adierazteko Lassallek *Allgemeiner Geist* («espiritu orokorra») delakoa jaso zuenaren frogara, gero Iheringek kritikatu zion liburuan. Lassallek "herriaren kontzientzia"-ren garapen historikora ere jo zuen, aberastasunari buruzko *eskubide eskuratu*-en baliozkotasuna edo balioegabetasuna egiaztatzeko asmoz.

Hautatzen den Savignyren "espiritua" eta hautaketaren helburuazain denaren arabera, Eskola Historikoak Kode zibil germaniarri eta Iraultza frantsesaren lorpen juridiko esportagarri zien aurkakotasunaren bide berean aurki gaitzke (hori baitzen garai hartan gehien eztabaidatzen zena), edota Ferdinand Lassalle iraultzailearekin eta justizia banatzaile bat izateko desioekin batera ibil gaitzke, justizia horrek azkenean jabetza pribatuaren santutasun iuserromanistaren estallkia urratuko lukeela. Savignyren eskutik sekula aurkituko ez duguna, eskubide indibidualen "tribu etniko" txikitzailearen topiko gastatua da, José Ramón Recalde eta Aleix Vidal-Quadrasek defendatzen dutena.

Berrikiago, bada espainiar nazionalismo kulturadun, plural eta inteligentean Savigny oso zentzu demokratiko batean erabili duenik, "eskubide historiko"-en esanahia ulertarazteko xedearekin. Miguel Herrero de Miñón-ek bere egin du "Savigny zuzenbidearen elementu politiko izendatutakoa, obra legegile guztiaren giltzarri". Eta, hori guztia, euskal probintziei eta Nafarroari eragiten dien "xedapen gehigarri baten juridikotasuna ukatzea zaila dela" proposatzeko egin du (M. Herrero de Miñón, 1991, 28 eta 29 orr.). Savignyren oroigarri hau pil-pil intelektualean jarri berri du Miguel Herrero de Miñón-ek, bete-betean asmatuz. Eztabaida konstituzional zirrargarri honetaz gandi ez dena inolaz ere itxia, ezta batzuentzako balsamu politiko orosendagarria eta besteentzako betirako surako kondenazioa ere, hemen interesatzen zaiguna Savigny intepretaria da, zuzenbidearen pentsamendura eta gizarteko gatazkak konpontzera teknika zorrotzarekin

zuzentzen den ororentzat izan behar duen *hermeneuta handia*.

Beraz, Savigny aitzakia bat baino zerbait gehiago izan daiteke oraindik ere, eta Iheringen obrak ere bai. Espainiar kultura konstituzionalaren gaur egungo panoramari so eginez gero, Savigny bere *Eskola Historikoaren «Aldizkaria»-ren xedeaz* artikuluan dioena aplikatu ahal izango genuke, historialari alemaniarrek honako ikuspuntua gaitzesten duenean: "une bakoitzean zuzenbidea sor dezaketela botere legegilea daukaten pertsonen beren hautamenera, iragan denborekiko independentzia osoarekin eta beren uste osoen arabera bakarrik". Zalantza izpirik gabe, gaur eskubide nazional katalan, eusko-nafar eta gailegoen iragan antifrankista alboratzen dutenak aipatutzat jo daitezke Savignyren kritikarekin. Baina bigarren Iheringek eta *Zuzenbidearen aldeko borroka* (R. Von Ihering, 1989, 65 eta 66 orr.) liburuko ideia bitalistak ere harrapatzen ditu. Eskubide nazional batzuren euskaldunak kasu eguneratzearen atzean dauden mina eta lana ahazten edo nahasten dituztenek, alboratu egiten dute Iheringiari jakinduria, "zuzenbidearen historian erregistra daitezkeen erdiespen guztiak" erregistratu egiten direla dioenean, "borrokarik bizienetariko baten ondoren", eta erants geniezaioke, gizartearen ahalegin zenbaezinen ondoren.

Ikus daitekeenez, Ihering eta Savigny beti daukate kontatzeko gauza interesgarriak. Ondoren azaltzen den Savignyren artikulua 1815ean argitaratu zen. Ordurako, Savigny aurreko urtean adierazi zuen bere iritzi guztiz kontserbadorea, "Kode frantsesa Alemanian iradoki ere egitearen" aurka agertuz. Heildelberg-en irakasle izandako Thibaut kodetzailearekin eztabaidatu du horren inguruan 1814ko *Gure denboraren bokazioa legegintzarako eta zuzenbidearen zientziarako* idazkian (F. Savigny, 1977, 38,40 eta 98 orr.). Savigny bertan adierazi du zer den Napoleon Bonaparteren Kode zibiletik atsegin ez zaiona: honek "Iraultza frantsesetik gordetakoa", ez, ordea, eta hau oso adierazgarria da lege bateratzaile honek "erakunde zaharren errestituzioaren bidea ireki izana". Iraultza eta errestituzio honek Savignyrentzat daukaten eragozpena, jendaurrean pakete eta bilduki kodifikatu berean agertzea da, bereizketa posible gabe. Zeren eta Savigny mugimendu kodetzaileraren eta bere jatorri frantsesaren aurka agertzearen zioa ez da hauek *askatasuna eta berdintasuna* mantentzeko duten helburua. Baina, Thibautekin izandako eztabaida txit ezagun honetan, Savigny berak zuzenbidearen oinarritutako gaitu sistema juridiko kodifikatu posible batek ekarriko lukeen *kultur txirotzeaz*, zeina "justizia administrazioaren zehaztasun mekaniko" batean oinarritutako litzatekeen eta "magistratuak, bere iritzi propio guztiak alboratuz, legearen aplikazio literal xumera mugatu beharko lukeen".

Juristak berdintasunaren etsai zen eta emakumeen askatasun juridikoa orduantxe hastapenetan zegoena batera atsegin ez zuen Savignyren irudiarekin geldituz gero baloreok garai hartako lege iraultzaile frantsesek aldarrikatzen zituztenak dira, aitasun proba ere sartu zutelarik, orduan dibortzioa bera ere ukatzera iritsi ziren elkarte ultramontanoetan har dezakete parte. Dibortzioari uko egitea eta emakumeen adulterioaren zigor pribilegiatua,

José Castán Tobeñas zibilistak defendatu zituen frankismopean, aurrez pentsatuta eta irmoki, eta gaur egun Gabriel García Cantero juristak, ideia aurrekonstituzionalak dauzkanak, neurritz kanpo goraiatzen du (G. García Cantero, 1998). Eta, hala ere, García Cantero ez da José Castán Tobeñasi merezi ez duen intsentsu hori zabaltzen dion garaikide bakarra. Baina gure egunotan zuzenbide publiko nahiz pribatua aditua dena Savignyren aberastasun interpretatzailearekin geldituz gero, “zehaztasun mekaniko”-aren automata atsekabetu horretatik eta legearen literaltasunetik haratago, Herrero de Miñónen aipatutako liburueta exegesi konstituzionalak bezain orri mamitsuak idatzi ahal izango ditu. Lehen Zuzenbide zibilaz hitz egin dugunez gero, esan jurista automataren aurkako ikuspegi hori bera izan zutela baita François Géný apartak eta bere *Zuzenbidea teknika gisa* teoriak, aparta hau ere, Savigny eta Kode frantsesa gaunditzeko ahaleginetan; Espainian José Luis Lacruz Berdejo zibilista eta foralista bezalako irakurle inteligenteak izan zituen.

Baina itzul gaitezen Iheringen obrara eta aldizkari honetan euskarara itzuli den artikulura. 1861ekoa da, eta bertan Savignyren metodo juridikoaren miresle bat aurkitzen dugu, “eraikin erromatarra birraikitzen” egindako ikaragarritzko lanagatik. Hala eta guztiz ere, dagoeneko soma daiteke ideia antikodetzailerekin eta Eskola Historikoaren metodologiak dituen mugekin bat ez datorren Ihering; Eskola Historikoa, bere ustez, hain da abstraktua, hainbeste bereizten ditu “izena eta gauza”, edo izenburua eta ikerketaren edukia, hain da artifiziala, hotza, monotono eta aspergarria... Savigny zaharraren azken klaseak bezala, non unibertsitateko ikasgeletan “aulkiek entzuleak bilatzen zituztela” zirudien eta hemen Savignyk Quevedo gogorarazten digu neurri batean, historiatzaile famatuaren bizitzaren garai onenetan gertatzen zenaren aurkakoa, “entzuleak baitziren aulkiak bilatzen zituztenak”.

Hortxe daude, beti interpretari onena baino hobe den agiri zuzen orotan bezala, eta gure *lingua Navarrorum* zaharrean, Rudolph von Ihering eta Friedrich Carl von Savigny talentu ikaragarrien egundoko bi azterlan horiek.

Zuzenbidearen Eskola Historikoa¹

Eskola Historikoaren Aldizkaria-ren xedeaz²

Friedrich Karl von SAVIGNY



Friedrich Karl von Savigny (Franckfort 1779 - Berlin 1861), jatorri frantseseko aristokrata bat zen. Heidelberg, Viena (ikus 2. irudia) eta Berlingo (ikus 3. irudia) unibertsitateetan irakasle izan zen, azken honetan Zuzenbide Erromatarreko katedra lortu zuen lehenengoa izanik. 1842 urtean Prusiako ministro izendatu zuten. Bere lanik ezagunenak honakoak ditugu: "Edukitzaren zuzenbidea" (1803), "Gure denborak legegintzarako eta Zuzenbidearen zientziarako duen bokazioa" (1814) "Zuzenbide erromatarren historia Erdi Aroan" (1839), eta "Gaur egungo Zuzenbide Erromatarren sistema" (1840-49). Bera izan zen Alemaniako Zuzenbidearen Eskola Historikoaren sortzailea. Ezaguna da bere garaikide Thibaut-ekin izan zuen polemika.

Aldizkari honen autoreak hau argitaratzera bultzatzen dituen, zuzenbidearen zientzia kontsideratzeko eta lantzeko moduari buruz horien guztien artean dagoen erabateko adostasuna da. Honako artikulua honetan, uste zabaldu honen berri emango dugu.

Juriskontsultu alemanen artean aspaldidanik nagusi diren metodo eta ikuspuntuez arretaz hausnartzen duenak, hauek guztiak bi mota nagusitan taldeka daitezkeela ikusiko du, eta juriskontsultuak, era berean, bi eskolatan. Eskola hauen artean funtsezko desberdintasun bakar bat baino ez da onartu behar, eta eskola bakoitzaren barneko desberdintasunak erlatibo gisa jo daitezke, beti batera daitezkeenak transizio antzemagaitzen bidez. Funtsezko antitesia beste garai batean baino zehaztasun eta zorrotasun gehiagorekin aldarrikatzen da gaur egun, eta hori denek onuragarritzat jo behar duten egitate bat da, bai liskarrean parte aktiboki hartzen dutenek, bai irtenbidearen zain ikusle lasai gisa daudenek; zeren eta ikusleak berak ere, orain baino lehen agian ezkutatu egiten zitzaionari buruz zehaztasun gehiagorekin informatzearen abantaila izango baitu gaur egun, alegia: bi bandoetako zeinen aldekoa den bere espiritua, eta, hortaz, nori begiratu behar dion lagun bezala eta nori arerio bezala.

Bi eskola horietako bat historiko izenez ezagutu izan da batik bat; bestearentzat, aldiz, zaila da izen positibo bat aurkitzea, zeren eta lehenengoari aurka egiteagatik baino ez denez eskola bat, hortik kanpo modurik anizkoi eta kontraesanguratsuenetan agertzen da, eta filosofia edo zuzenbide natural zein arrazoi komun on gisa ematen da aditzera. Beste esamolderen ezean, beraz, *ez historikoa* deituko diogu. Hala eta guztiz ere, ezinezkoa da juristen eskola horien arteko antitesia ulertzea gure zientziari soilik jarraitzen baldin badiogu, antitesi hau erabat orokorra eta giza gauza guztietan gutxi gora-behera ikuskorra delako, batez ere estatuen eraketa eta gobernuei dagokien arloetan.

Hona hemen zein den arazo orokorra: zer-nolako harremana du iraganak orainarekin, *Gertatzen denak Izanarekin?* Honi buruz, batzuek diote aro edo adin bakoitzak askatasunez eta arbitrarioki ekoizten duela bere bizitza, bere antolaketa; ongi eta zoriontsu, edota gaizki eta zorte txarrarekin; bere adimen eta indarraren arabera egiten du. Baina ez da batere

1. Friedrich Karl von SAVIGNY, "Über den Zweck dieser Zeitschrift" (1815), *Thibaut und Savigny. Ihre programmatischen Schriften*, Verlag Franz Vahlen, Munich, 1973, 231-254 orr. Gaztelarazko itzulpena: R. Atard, "Sobre el fin de la Revista de la Escuela Histórica", Savigny, Eichhorn, Gierke, Stammler, *La Escuela Histórica del Derecho. Documentos para su estudio*, Librería General de Victoriano Suárez, Madril, 1908, 11-27 orr.
2. *Zeitschrift für geschichtliche Rechtswissenschaft*, I zkia., I liburukia.

arbuiaugarria –gaia modu honetan kontsideratu arren– iraganaren azterketa, bere bitartez ikas baitaiteke zein emaitza lortu diren izandako jarrerarekin: historia, zentzu horretan, adibide politiko eta moralen bilduma bat da. Aipatu azterketa, hala eta guztiz ere, jenio batek erraz asko alhora dezakeen ezagutza auxiliari ugarietako bat baino ez da.

Historiaren garrantzia

Besteen teoriaren arabera, ez dago guztiz banakakoa eta isolatua den giza existentziarik; aitzitik, banakakoa kontsidera daitekeen oro, goi osotasun bateko partaide bezala begiratu behar da. Horrela, gizabanako bakoitza, hala kontsideratzeaz gain, familia bateko, herri bateko, Estatu bateko kide gisa ere kontsideratu beharra dago; eta herri baten historiako garai bakoitza, igarotako adinen jarraipen eta garapen gisa. Gainerako beste edozein ikuskera, partziala da hargatik, eta bizitzara eraman nahi denean, faltsu eta kaltegarria bilakatzen da. Honen arabera, ordea, denbora bakoitzak ez du bere bizitza propioa izatez eta arbitrarioki sortzen, baizik eta iragan guztiarekiko duen elkartasun banaezin bati jarraituz. Kasu horretan, arrazoi beragatik, adin bakoitzak jada emana datorkion zerbait onartu behar du,aldi berean beharrezkoa eta askea den zerbait: beharrezkoa, ez delako orainaldiaren hautamen bereziaren araberkoa; askea, ez delako inoren borondateak inposaturikoa (Jaunak bere esklaboei agintzen dienean bezala), baizik eta herriaren funts goretetik jaiotzen da, etengabe bilakatzen eta garatzen den osotasun bat bezala. Oraingo adina goi osotasun honetako zati ere bada, osotasun horretan eta horrekin nahi eta jarduten duena; beraz, osotasunak egiten duena zatiak berak ere askatasunez egiten duela esan daiteke. Historia ez da, hortaz, adibide politiko eta moralen bilduma bat bakarrik, baizik eta baita gure estatua bera ezagutzeko bide bakarra ere. Ikuspuntu honetan dagoena, gainera, zio beragatik kontrako jarrera ere epaitzen ari da. Kontua jada ez da onaren eta txarraren artean aukeratzea, zerbait arrezagutzea ona balitz bezala eta arbuiatzea txarra, eta bata zein bestea egitea erabat posiblea. Aitzitik, guztiz ezinezkoa da existitzen dena (*gegebenes*) –zeinak zorigaitzoko modu batean menperatzen gaituen– arbuiatzea, eta itxaropen ustelik eduki dezakegun arren, ezin dugu ekidin. Askatasun komun eta goren hori besterik posible ez den lekuan bere hautamen berezi propioa erabiltzen duela sinestuz bere burua engainatzen duena, bere esku-biderik preziatuenei uko egiten ari da: errege dela uste duen morroi bat da, gizaki askea izan zitekeenean.

Ikuspuntu historikoa eta ez historikoa

Izan zen garai bat non zatiaren eta osotasunaren arteko banaketari irmoki eta arrakastarako konfidantza osoarekin erasotu zitzaion; ez orainaldiaren eta iraganaren arteko banaketari soilik, gutxi iruditzen baitzitzaien, baizik eta baita hiritarraren eta Estatuaren artekoari ere. Azken hau, esperientzia penagarriak medio, okerra eta kaltegarria dela aitortu dute, eta nahiz eta orain bertan bere bihotzean gordeta daukan eta praktikoki gauzatu nahi duen jende asko dagoen, teoriarik ez da jada erraz iragartzen. Guztiz alderantzizkoa gertatzen da orainaldiaren eta iraganaren arteko beste banaketa horrekin, zeinak gaur egun ere nonahi aurkitzen dituen jarraitzaile publiko eta sutsuak, nahiz eta zentzuga-bea den bata arbuiatzea bestea jarraitzen den bitartean. Berekoikeria historiko hau –hala dei baitakioke lehen banaketa hari– bestea baino denbora gehiagoan kontserbatu izanaren zergatia hauxe da: askok –ohartu ere egin gabe, egia esan– munduko ordenari buruz duten ikuskera pertsonala orden horrekin nahasten dutela, eta horrela heldu dira mundua eurekin eta euren iritziekin hasi delakoaren sentimendu engainagarria. Esan beharrik ez dago aipatutakoa, oro har, ez dela horietako inorengan beren kontzientziara iristen; sentimenduaren esfera ilunean geratu eta guztiz partikularrak diren aplikazioetan soilik agertzen da; baina hori horrela den arren, literatur fenomeno bat baino gehiago kontsidera daiteke.

Aplika dezagun bi ikuspuntuen –hau da, historiko eta ez historikoaren– arteko antitesiari buruzko azalpen orokorra zuzenbidearen zientzian, eta ez da zaila izango lehen aipatutako bi eskolen izaera zehaztea.

Eskola Historikoak onartzen du zuzenbideko materia nazioaren iragan guztiak emana dela; baina ez modu arbitrario batean, hau edo bestea izatea kasualitatea balitz bezala, baizik eta nazioaren beraren eta bere historiaren barne-barneko esentzietatik eratorrita. Denbora bakoitzak, ondoren, barne behar batengatik jaiotako materia hori aztertzeraz, gaztetzera eta berri-berri mantentzera bideratu beharko du bere jardueraz.

Eskola ez historikoak, aldiz, zuzenbidea botere legegilea duten pertsonen hautamenaz sor daitekeela dio, iragan denboretako zuzenbidearekiko independentzia osoarekin

eta legegileen usteen arabera soilik, oraingo une historikoak bere usteak sortzen dituen bezala. Hori dela-eta, sartu den zuzenbidea noizbait aurrekoarekiko erabat berria eta desberdina ez balitz, eskola honek hori azaltzeko lukeen erantzun bakarra litzateke legegilea bere karguaren egikaritza zuzenean nagia izan zela esatea, eta, hortaz, iraganeko iritzi juridikoak oraindirako ere benetakoak bailiran mantentzeko beharra izan zuela, behin-behineko izaerarekin bederen.

Printzipio hauek kasu partikularretan aplikatu nahi dituen edonor jabetuko da bi eskolen artean dagoen kontrakotasun handiaz. Botere legegilearen eta judizialaren kuestioak, eta bereziki zuzenbideari buruz jarduteko modu zientifikoak; denak du oinarri desberdina, ikuskera bata edo bestearen arabera. Praktikan, hala ere, ez da hain antitesi sakona ematen; aitzitik, bi eskoletako fruituak nahiko antzekoak dira sarritan: errealitatean ohiki sentimenduaren inpresioagatik bakarrik ekiten delako gertatzen da hau, eta printzipio nahiz ondorio doktrinalak alde batera uzten direlako.

Aldizkari honen autoreek, uste osoz Eskola Historikoaren aldekoak izanik, aipatu eskolako ikuspuntuen moldaera eta aplikazioa sustatu nahi dituzte beren ekintza komunaren bidez; hein batean beren lan propioen bitartez, eta beste hein batean beraiek bezala pentsatzen duten pertsonen lotura puntu bat eskainiz. Indarrak preziatuenei esker nazioaren interes gorenak salbatu diren egunotan da, hain zuzen ere, ekintza horri itxaropen sendoeekin ekiteko unea. Azken urte tristeetan edonolako ikerketa historikoak –batez ere gure aberriari dagozkionak– gauzatuta ere, sentimendu lazgarria baino ez zuketzen sortuko; berri eta freskoa da, oster, ikerketa horiek gaur egun duten pizgarria. Eta horregatik poztuko lirateke autoreak zuzenbide nazionalaren azterketa historikoari bultzada berri bat ematea lortuko balute. Hain altxor ezkutu aberats eta ezezagunak daude hemen oraindik, ezen Eskola Historikoaren aurka daudenek beren areriotasun guztia zuzenbide erromatarraren historiaren laborantza neketsuari zuzentzen diotela, germaniarra, aldiz, existituko ez balitz bezala isilean baztertuz; nahiz eta beren ikasketa harrokeriaz agertuko balute, ziur hainbesteko higuinarekin –edota, are, gehiagorekin– begiratuko lioketela hari.

Zuzenbide nazionalaren azterketa historikoa

Egin berri diren hausnarketek argi adierazten dute ideien orden honetan edozein modutara idazteko prest gaudela; baina geureganatu dugun aldizkari formak argibide bereziren bat behar du.

Ez dirudi literaturako halako forma iragankor eta aldi baterakoek duela gutxira arte zuten arrakasta aparta dutenik orain Alemanian. Eta bistakoa da batik bat forma horiez osatutako literatura batek ez duela jada gaurkotasunik. Pentsamendua osotasun handi bateko forma sendoetan garatzea da benetan estimagarria dena, hau da, era arruntean liburu deitzen ditugunetan. Baina hara: aldizkariak oraindik landu gabe dauden pentsamenduak soilik zertzelada bezala –zeina beti ere erosoagoa baiten– hedatzeko aukera maiztasunez eskaintzeak, nolabait zaildu egiten du onak diren obra osoak argitaratzea, eta zentzu horretan, arrazoi guztiarekin esan daiteke aldizkariak oztopo direla liburuak osatzeko (*Bücherableiter*). Halere, zentzuarekin erabiliz gero, ondorio onuragarriak sor ditzakete. Ideia isolatuetatik liburu oso eta onetara igarotzea, bata bestearen atzetik datozen pausoak dira, eta hortaz, eraldaketa hori oso motela izan ohi da gehienetan. Aldizkari batek prozesu hori erraztu eta sustatzeko asmoa baldin badu, oso ondorio erabilgarriak sor ditzake. Honaino, aldizkariaren abantaila mintzatzean, bere autore eta kolaboratzaileen interesen aritu gara. Baina irakurleei begira ere, oso probetxugarria gerta daiteke aldizkari forma. Nazio bateko literatura ez da ematen ez geldirik egonez, ezta partzialki eta eskusiboki liburu zein autore isolatuen bidez agertuz ere; aitzitik, jakintsu guztiek jendearekin bat eginez eta elkarrekintza nahiz erreakzioz sortzen eta animatzen dute etengabe literatura. Nik uste dut gauza hauetan praktikoa den edonor erraz asko jabetuko dela horretaz, baita zailtasun handiagoa dagoen kasuetan ere, oraingo garaian eta gure nazioan bertan, alegia. Gauzak hainbesteko sakontasunez begiratu ezin dituztenentzat ere, agian interes handia du lehen aipatu dugun ideien prozesu hori guztia denentzat agertzeak, eta bitartekari papera ongi asko joka dezake aldizkari batek, zeren eta liburu bereziak baino inpresio biziagoa sortzeko moduan dago, bai bere autoreen eta kolaboratzaileen ideien bategite nagusiagatik, bai bere agertze sarri eta partzialagatik.

Aldizkariaren abantailak

Hona hemen, bada, zergatik dirudien aldizkari batek zerbitzu on bat eskaini deza-keela –aipatutako gehiegikerian erortzea ekidinez gero–, batez ere jende ikastunari

dagokionez; eta, horregatik, autoreek, irakaskuntzarako duten bokazio berezian, beren ahalegina gauzatzeko bizigarri berri bat aurkitu dute.

Alabaina, bere izenak adierazten duen lez, garrantzi bikoitza dauka bai bere denborarekin, bai orainaldiaren estimazio egokiarekin, eta baita iragandako adinetako literaturarekin beste edozeinek baino harreman handiagoa daukan ekintza batean.

Iraganarekiko
gehiegizko
estimua

Zailtasunik gabe ikus daiteke autoreak zeinen urruti dauden orain arte nagusi izan den gau iluna argitu behar dela –egun argiaren zientzia juridikoaren kontzeptuan– dioen beste ikuspuntu hartatik; aitzitik, gorago azaldutako eskola horretako ikuskera historikoa defendatzen dute. Baina, bestalde, iraganarekiko halako estimazio itsu eta gehiegizko bat dago, ia beste presuntzio hura baino arriskutsuagoa dena, guztiz moztzen baititu orainaldiko indarrak; horregatik, zentzu historikoak ez du bere alde egon behar, baldin eta praktikara eraman behar baldin bada, hitz hutsetan gelditu gabe. Hala, duela gutxi esan da zuzenbide erromatarra dela inoiz aurkitu den nagusi eta garrantzitsuena, eta modernoan meritua jada bilduta dauden iritzi eta teoriaren arteko aukeraketa egitea besterik ez dela; edota, gehienez ere, arrazoi berriekin defendatzea, zeintzuak, gainera, gehienetan aitzinakotetan oinarritzen diren³. Horrela izango balitz, ogibide mekaniko bateko lana –non inoiz ez den faltako asmakuntza propio eta berrietarako aukerarik– talentuzko gizon batentzako duinagoa irudituko litzaiguke gure zientzia baino. Zorionez, ez da horrela. Egiaz ezin liteke baieztapen horrekin aipatutako XVI. mendeko zibilisten garrantzia saihestu, eta *Aldizkari* honetan garai eder hartako handitasuna aldarrikatzeko aukera ugari eskainiko dira beharbada. Orduan hasi ziren historia eta filologia gure zientziara aplikatzen; pauso bakoitzean iturri berriak aurkitzen ziren, eta edozein tokira begiraturata ere, ezagutza berri-berriei esker, inoiz susmatu gabeko eta gero eta oparoagoa zen erlazio multzo bat aurki zitekeen. Horrek, indar propioetan konfidantza gazte eta kementsua izatearen sentimendua sortu zuen, ikerketak neurri berean eta mugagabetasun berdinarekin jarraituko zuelakoaren sinesmen ustelarekin –baina,aldi berean, oso naturala– indartu eta goretsia; eta horrela, benetan aurkitutako altxor handiekin batera, etorkizunean aberastasun itzel bat edukiko zenaren bihozkada zegoen, makiltxo magiko bat edukitzean izango litzatekeena bezalakoa. Gure denborak ez du haren antzik, ez esandakoan, ezta erudizioaren hedapenean ere, eta horregatik diogu gaur egun juriskontsultuek, banaka aintzat hartuta, ez dutela sekula gizon puska haien ospe pertsonalik izango. Baina bizitza ez da gelditu, eta denboraren ekintza unibertsalaren ondorioz, XVI. mendean pentsatu ere ezin zitezkeen zenbait gauza, posible dira orain. Oro har, literatur garai batek iraganarekin duen harremanak antzekotasun handia du borondate oneko gizaki bat bere garaikideekin lotzen dituen harremanarekin: gustora arrezagutzen du besteen meritua, eta espiritu irekia eta mirespen gartsua du obra handi ororekiko, baina bokazio propioarekiko sentimendu ziur eta lasai batekin. Egia handia da, bestetik, adin guztiei dagokienez, Paracelso-k ikasle eta irakaslearen arteko harremanei buruz modu zoragarrian esandakoa:

Ikasle baten tasunik goren eta laudagarriena, bere disziplinak hego indartsu eta handiak ematen dizkion bitartean argizaria bezain bigun mantentzea da, eta orduan zartari ihes egin dakiola. Ohoragarri eta goresgarria da gazteek zaharrak beren kabietatik botatzea, uneoro zientzian eta trebezian, kemenean eta gogoan gainditu egin behar dituzte-eta, eta pago gazte bat hazitzen den bezala hazi, bere handiagotzearekin pago zaharren aintza lehiatuz.

Aldizkariaren
edukia

Hauek dira, bada, *Aldizkari* honi ekiteko ditugun usteak eta xedea. Bere edukia, bereziki, honela iragarri da liburuetako oharretan:

1. Zuzenbidearen zientzia positiboko arlo guztiei buruzko saiakerak; hala ere, zuzenbide erromatarrari eta germaniarrari buruzkoak batik bat. *Aldizkari* honen helburuari jarraiki, oro har ikuspuntu zientifikoari eta bereziki historikoari dagokion lanak soilik argitaratuko dira. Praktiko hutsak diren artikulua baztertu egingo dira.

3. *Jahrbuch*, HEIDELBERG, 1815 (Heidelberg-en Urtekariak), 2. koadernoan, 110 eta 157 orr.

2. Zuzenbidearen iturriak. Goiburu honetan barnebiduko diren iturri juridikoak hauek dira:

- a) inprimatu gabeak edota gaizki nahiz guztiz ez direnak inprimatu, edo oso liburu arraroetan bakarrik inprimatu direnak;
- b) bi edo hiru emanalditan argitara daitezkeenak, emanaldi bakoitzeko gainerako edukia gehiegi mugatu gabe;
- c) berehalako interes zientifikoa dutenak.

Aipatu iturriok, beren esanahi historiko eta zientifikoa azalduko duen sarreratxo batekin joango dira beti, eta, beharrezkoa denean, baita itzulpen eta ohar argigarririk ere.

3. Nahasteak. Goiburu honetan argitaratuko dira:

- a) erabilgarriak, arraroak edo nahiko ezezagunak diren liburu edo eskuizkribuetako literatur albisteak;
- b) biografia juridikoetarako lan auxiliarrak eta irakaskuntza erakundeetako historia;
- c) iturri juridikoetako testuei buruzko ohar kritiko batzuk, pasarte zailtarako interesgarriak eta argigarriak direnean;
- d) arlo zehatzei buruz ikerketa sustatzera zuzentzen diren artikuluko motzak.

4. Aipamen kritikoak, aukeraketa zorrotz baten ostean beti ere.

Esandako guztia nahiko argia da, baina, hala ere, zenbait ohar egitea egoki dela deritzogu:

Saiakera edo azterlanak dira, normala den bezala, ekintza honetako objektu nagusiak. Arlo zientifikora zuzentzen dira, zuzenbidearen historiara bereziki, non metodoa edota egitateen ikerketa gailentzen diren. Horregatik, helburu praktikoa deiturikoa, hau da, bai justizia administrazioa, bai epailtza, bai abokatutza errazteko modu berehalako eta mekanikoa, *Aldizkari* honen planetik kanpo gelditzen da. Autoreekiko iritzia okerra litzateke, ikasketa juridikoen banaketa arrunta dela-eta beren planean zuzenbidearen historian barnebil daitezkeen lanak soilik sartzen direla pentsatuz gero; alderantziz, dogmatika eta interpretazioa guri ere badagozkigu, zentzu historiko batean beti ere; eta, oro har, lan bat gure *Aldizkaria*-ren xedearekin bat datorren edota arrotza den jakiteko, ez zaio objektuari begiratzen, lantzeko ikuspuntu eta moduari baizik. Era berean, autoreek ez dute zertan beren lanetatik arlo praktikoa kanporatu beharrik, jurista praktikoaren eta zientzialariaren bokazioak elkarren aurkakoak bailiran beren espirituagatik. Ez da horrela; historikoaren eta ez historikoaren artean bakarrik dago erabateko antitesia, zeren eta kontu praktikoa zentzu zientifikorik delikatuenaekin trata daitezke, juriskontsultu erromatarren erantzunetan bezala, non kontsiderazio praktikoa eta historikoa, biak hein berean baitiren miresgarri. Ikertutakoa begirada soil eta berehalakoan argitzen denean, gurekin irauin eta bizi den zerbait balitz bezala, orduan lortzen du garaipena ikerketa historikoa, eta une horretantxe egiten dute bat bi ikuspuntuak, historikoa eta praktikoa alegia. Baina ez da beti lortzen historia espiritu horrekin ikeretzea, eta lana prezio baxuagoan egin nahi ez izatearen asmoak gauzen kontsiderazio guztiz azalekoa dakar ezinbestean berekin, aurkako desira (materialtasunarena) baino askoz ere antzuagoa den espirituaren asmo hutsal batean. "Oro har –dio Goethe–, ez dut aurkitu letrak oraindik ezezagun eta ilun zaizkiola espiritura iristeko asmoa agertzen duenaren harrokeria baino kaltegarriagorik". Edozein ikerlarirengan aurkitu nahi diren tasunak hauek dira: alde batetik, zorroztasuna, hau da, gauzen barru-barruraino sartzeko grina izatea; bestetik, apaltasuna.

Saiakerak

Oraindik inprimatu gabe dauden iturriak ezagutzera ematea zientzia historikoari eskain dakioken lehen zerbitzua dela esaten erabateko adostasuna egongo da. Zerbitzu hori kasualitate arraro eta zorionekoen araberakoa da, ordea. Hortaz, aipaturiko iturriei buruz aurkitzeko zoria duten guztia igortzera gonbidatzen ditugu gure zientziaren jarraitzaile guztiak, autoreen erretolika berezirik gabe bada ere. Kasu horretan, aberriko zuzenbidearen historiarako hezigarriak izan litezkeenek izango dute agirien artean lehen-tasuna.

Inprimatu gabe dauden iturriak

Azkenik, aipamenei dagokienez, behintzat literatura juridiko guztiari buruz kontu emateko asmoa dugu, azaltzen doan heinean. Kritikagarriak izango diren bakarrak, autoreei zerbait propioa eta zientziarako interesgarria izan daitekeena esateko aukera ema-

Literatura juridikoa

ten dieten obra bereziak izango dira. Baina, muga hori egon arren, ez dugu uste gure eginkizunen zati hau inolako erabilkortasunik gabea denik; zeren eta zuzenbideko obren laburpen on eta funtsezkoak nonahi agertzen direla egia izan arren, kritika juridikoak, oro har hartuta, poetak kantatutako Zoriaren antza handia du: “jendetzaren artean atzematen da, eta une batean haurren ile kizkur errugabeetan pausatzen da, eta hurrengoan, aldiz, burusoilen buru errudunean”; desberdintasun bakar honekin: zoriak askotan errugabearen heriotza eragiten duela, kritikak, aldiz, merezi ez duenari bizia opatzen dion bitartean. Esandakoarekin, ziur zuzena den inork ez dituela *Aldizkari* honen autoreak harroputz nahiz handiustetzat joko, kritiko gehienetatik beren zentzuduntasun eta buruhausteetatik aske egoteagatik bereizi nahi dute-eta.

Ezin dugu *Aldizkari* hau argitaratuko den maiztasunari nahiz bere iraupenari buruz ezer ziurtatu –ezta nahi ere–. Ziurta dezakegun gauza bakarra da, lana atseginez eta gaiarekiko maitasunarekin egin behar dugunez gero, naturalki behar duen maiztasunarekin kaleratuko dela, ez gehiagorekin, ez gutxiagorekin. Baina, asko edo gutxi iraun, inork ezingo du bere benetako helburutik sekula aldendu denik esan.

Savigny

Rudolf von IHERING¹



Rudolf von Ihering (Aurich 1818 - Gotinga 1892), juristen familia alemaniar bateko semea zen. Unibertsitate ugariatako irakasle izandako honen lanik nagusien artean, hauek ditugu: “Zuzenbide Erromatarraren espiritua” (1872), “Zuzenbidearen helburua” (1877) eta “Jurisprudentzia seriooki eta brometan”. Savigny eta Stahl-en dizipulu izan zen.

Jurisprudentzia alemanak inoiz izan duen “izarrik distiratsuenaren”-ren desagerpenak, Urtekari honetan berari buruz aritzera bultzatu nau. Albistea jasotakoan, artikulua idatzi nuen lehen zirrara horren pean, eta, gertakari honek Savignyren jaioterri den Main-eko Frankfurt hiriarekin zeukan loturagatik, bertan agertzen den egunkari batera bidali nuen. Ordurako erabakita neukanez desagertutako gizon ospetsuari Urtekari hauetan ere omenaldi bat egitea, hau egin ahala ohartu nintzen zein zaila den denbora epe labur batean gai berari buruz bitan jardutea, eta lehenagoko artikulua, funtsean, hemen esan behar dudana guztia jasotzen duenez, aldaketarik egin gabe kopiatzea erabaki dut. Bi ohar besterik ez dizkiot erantsi, ez nireak, Vienako Armdts-enak baizik; Savignyren jarraitzaile den jakintsu honek aipatu hiriko fakultatean haren oroimenezko ekitaldi bat inauguratzean hainbesteko duintasunarekin emandako hitzalditik hartuak dira.

Zure egunkariaren bidez jakin berri dut Savigny urriaren 25ean hil zela Berlinen. Aspalditik espero zitekeen albistea izan arren –eta nahiz eta azken hamarkadaz geroztik Savigny zientziatik desagertutako ospetsu handien artean zegoen–, zirrara sakon bat sortuko du gaur egungo jurisprudentziak berari zor diona apreziatzeko moduan dauden giro guztietan. Beste inork baino hobeto hezurramitzen zuen gure mende honen hasieraz geroztiko jurisprudentziaren historia. Denborak aurrera egin ahala, gure artean oraindik handi gisa agertzen diren gizon askoren distira itzalitakoan, berea are distiratsuagoa izango da, eta berarekin hasten den zientziaren garai guztia bere izenaren inguruan mugituko da –beste batzuek egin eta lortu duten guztiarekin bezala–, zeharkako meritu gisa aitortuko zaiolarik. Hori dela-eta, 1861eko urriaren 25a beste edozein egunen gainetik dagoen egun historiko bat da jurisprudentziarentzat, eta berak ez badu itxaropen oro aienatzen uzten, ez baldin badu etorkizun distiratsua bat hazitik hiltzen –1846ko urtarrilaren 8an, Puchta-ren heriotzaren egunean, gertatu legez–, baizik eta iragan loriatsu bat amaitzera mugatzen bada, urtetan fruiturik ematen ez zuen zuhaitz bat iraultzera, esan behar da zuhaitz honek, oster, fruitu asko eman dituela, eta historik gabe egon arren, itxura aparta duela oraindik; basoko beste zuhaitzen gainetik gailendu egiten da, eta aberri alemanaren mugez bestalde ere ikusi eta ezagutu daiteke, bere erorketaren albistek denei eragingo dielarik: bere handitasuna behatu zutenengan, emozio sakon bat sortuko du, eta berari zor diotena zuzenean edo zeharka ezagutzen dutenengan, eskertza. Utz iezadazue hunkipen hau adierazten. Horretarako, egiaz, ez dago Frankfurteko aldizkari bat baino egokiagorik; izan ere, Frankfurt izan zen 1779. urtean nazio alemanari gizon hau eman ziona, bere harresien barruan Goethe jaio zenetik hogeita hamar urtera. Izen honek jurisprudentziaren historiarako duen esanahia ez da Goetherenak alemaniar agertu zen: *Tres vidas ilustres: Hugo, Savigny, Ihering, Resurgimiento del derecho alemán*, Depalma, Buenos Aires, 1915, 83-113. orr.

1. Rudolf von IHERING, “Friedrich Karl von Savigny” (ikus 6. irudia), *Gesammelte Aufsätze aus den Jahrbüchern für die Dogmatik des heutigen römischen und deutschen Privatrechts, Band 2*, Scientia Verlag, Aalen, 1969, 1-21 orr. Gaztelarazko itzulpena: Norberto Gorostiaga, *Revista de Ciencias Sociales*, 25. zkia.: “Savigny y la ciencia del derecho”, Facultad de Derecho y Ciencias Sociales de la Universidad de Valparaíso-k argitaratua, A. Squella-ren zuzendaritzapean, Txile, 1979, 67-82. orr. Artikulu honen originala honakoan argitaratu zen: *Jahrbücher für die Dogmatik des heutigen römischen und deutschen Privatrechts*, V, 1861, 351 eta hurrengo orriak. Artikulu honen gaztelarazko lehen edizioa honako liburukian agertu zen: *Tres vidas ilustres: Hugo, Savigny, Ihering, Resurgimiento del derecho alemán*, Depalma, Buenos Aires, 1915, 83-113. orr.

gainean moldeatu nahi izan zituela pentsa ere daiteke, hain dira guztiz paraleloak bien patuak. Hilabete gutxi batzuk baino ez dira falta izadiak beren existentzia materialari jarri zien amaiera berbera izan zedin.

Savignyren obra

Hondamenez betetakoa zen Friedrich Karl von Savigny munduko argia ikusi zuen garaia, eta, Goethe-renean bezala, bere sehaskan ere arruntkeriaren, ergelkeriaren, lengoaiaren ezpurutasunaren, dogmatismo sektarioaren iratxoak izan zituen begirale, horiek guztiak aurreko mendeko ohitura espiritalen bereizgarri, nahiz eta jurisprudentiaren ohiturak jarraituz, txirikordez ornituak zeuden. Baina bi sehasketara ez ziren hurbildu –gizon amankomunenetara egin ohi zuten legez– gogaitasunaren putzarekin, sortzen ari zen indar berria geldiarazteko, bertan beren txirikorda eta ileordea eskaintza gisa ipintzera, baizik eta egunen batean beren bi esku indartsu eta gazteekin abailduko zituzten etsaiak seinalatzera. 24 urte zeuzkaten lehen kolpea eman zutenean, zeina munstro haien bihotzak zauritzeko aski izan baitzen; bataren kasuan, Von Goetz eta Werther-en irudietan gertatu zen, eta bestearen kasuan, “Edukitza eskubidea”-n (Marburgo, 1803); biak tradizioaletik eta nagusi ziren aurreiritzietatik aldendu ziren: bata izadira itzultzen, eta bestea –hau ere izadira itzuli zela esan liteke nolabait– juriskontsultu erromatarren metodo zientifiko jatorrera itzultzen. Garai hartan nola utzi ziren espiritu juridiko fresko eta agortezina jariatzen zuten iturriak ixten eta lehortzen! –adituak jakingo du, bai, Justinianoren lege bilduman jasota dagoen jurista erromatarren literaturaz mintzo naizela–, zein arrea zegoen bizitzako beharrik berehalakoena atzetzeko hor hartuko zen ura! Egun batean mundura pentsakera juridikoaren asmakizun aske gisa iritsi zena –bide batean, edozein pentsalarik aurkituko zukeen lekuan aurkituta–, xedapen legegile positibo bat bihurtu zen; pentsamendu juridikoa, jurista erromatarren erabakietan objektiboki jasoa aurkitzen dena, harri eta hezur bihurtuta agertzen zen banakako erabakietan, *Corpus Iuris*-eko “lege eta zati”-etan isolatuta; horrela, pentsamendua bera sustatu beharrean, alferrikakoa bihurtzen zen. Leku guztietan bezala, norberaren pentsamendua falta den lekuetan ere lagungarria izan ohi da besteen pentsamendura jotzea, aipamen deiturikoetara, autoritateen gurtzak gartsuki egiten duelarik aurrera. Nork itxaro du halako zientzia batean gustua edo plazerra aurkitzea? Horrek adierazten du zergatik eman zioten Goetheren espiritua bezalakoek azkar bizkarra, ezinikusiz. Zortea izan zen gure zientziarako Savigny gauza bera egin ez izana.

“Edukitza eskubidea”

Zuzenbide erromatarren historia Erdi Aroan

Savignyren espiritua, beste harena bezala, oso gazterik heldu zen. Marburgon 1800. urtean doktore maila eskuratu ondoren, 21 urterekin hiri hartako fakultatean irakasle izendatu zuten, gazetetasun betean. Laster hartu zituzten aintzat bere merituak, eta aparteko irakasle izendatu zuten. Hiru urteren buruan, gorago aipatutako obra argitaratu zuen, orain aztertuko duguna. Obra hau jurisprudentiaren gaur egungo egoeraren giltzarri dela esan daiteke eta, hasiberri baten obra izan arren, geroago Savigny berak nahiz beste idazle batzuek jurisprudentzia birsortzea lortzeko egin zezaketen eta egin zuten guztiaren muina jasotzen du: zatiketa tradizionalen, definizioen, arauen, esamolde teknikoan alferrikako zama astintzeko gogo animoso eta gaztea du, bere aurrekoen kritikek grinaz, sakonki eta leuntasunez lagunduta, ordurate Hugo-z gain (ikus 4. irudia) inork izan ez zuena; iturrien erabilera independientea, aurreiritzirik gabekoa, baina, batik bat, biderik nahaspilatuenetan zehar jurista erromatarrei jarraitzeko gaitasuna, eta puntu isolatu eta adierazpen iheskorretatik abiatuz, teoriaren funtsezko ideiak eta lerro originalak deskribatzeko gaitasuna, pentsakera erromatarra berpizteko eta eraikuntza erromatarra berreraikitze gaitasuna; hitz batean, jurisprudentzia erromatarren espiritua berriz ere gogoratzea eta bere obrako adimen intimoa jasotzea; eta, hori guztia, baita jurista ez den batek ere erakargarri izatearren erabiliko zukeen hizkuntza batean. Horrelakoak dira obra honen bereizgarri diren ezaugarri partikularrak. Nahiz eta gaiaren estiloa dogmatikoa den, aldi berean ekarpen historiko bat egiten du, hitzaren bi zentzuetan; garai hartako ideietatik isolatzen eta jurista erromatarrenetan murgiltzen jakin zuen norbaitek soilik idatzi izan zezakeen, eta hori beste inork baino hobeto egiten jakin zuenak azterlan historikoen beharraz jabetuta behar zuen egon. Savigny, uste hori gartsuki baieztatuz, helburutzat liburutegiak konpultsatzea zuen bidaia zientifiko batean eman zituen hurrengo urteak –Goethek Italiara egindako bidaiaren kontrapartida–, Erdi Aroko zuzenbide erromatarra aztertze gaitasuna, honen emaitza baliotsuak sei liburukiz osatutako bere *Zuzenbide erromatarren historia Erdi Aroan*-en azalduko zituelarik beranduago (1815-1831). Egia esan, zuzenbidearen historia literarioaren itxura hartzen zuen zuzenbidearen historiak, baina obra honi ematen zaion izena edozein izanik ere, bere balioa ez da ino-

laz ere murrizten, zeren eta berria bezain garrantzitsua den aurkikuntza sorta batek (mendebaldeko Inperio erromatarreko lurraldeetan zuzenbide erromatarrak izandako jarraitasunaz, unibertsitatez, Erdi Aroko historia literarioaz, etab.), erromatarrondorengoko zuzenbidearen historiako literaturaren lehen lekuetako bat ziurtatzen dio. Zuzenbide erromatarraren historiak, aitzitik, ez du mota horretako elaborazio bateragarriarik ezagutu; monografia isolatu batzurekin konformatu behar izan zuen, horietako batzuk garrantzi handikoak izanik; batzuk Berlingo Zientzien Akademiako bilduman argitaratu ziren (*Abhandlungen*), eta beste batzuk zuzenbidearen zientziaren historiako Aldizkarian, Savigny berak Eichhorn eta Goeschen-ekin batera sortuan, eta geroago (1850) bere *Nahasteak-en* (*Vermischte Schriften*) bildu ziren. Fenomeno hau beti izan zait deigarria, zeren eta norengandik espero zitekeen, bada, zuzenbide erromatarren historia, Eskola Historikoaren sortzaile izandako Savignyngandik ez bazen? Bere sen ona izan zen eremu hori lantzera bultzatu zuena, nahiz eta ikertzeko grinari hainbestetan oztopo garaitzinak aurrejartzen zitzaizkion eta jakintzaren hutsuneak betetzeko lana hipotesiari utzi beharra izan. Bestetik, Savigny beste batzuk eremu honetan abandonatzeak ez zion asko lagundu Zuzenbide erromatarraren historiaren bultzadari. Goldea irmoki heldu izan balu, kardua eta larrak ez zirakeen zabalduko. Savigny iturrien kritikarekiko erreserba berdina ikusi izanagatik, nahigabetzeko arrazoi gutxiago daude, eta baita besteri horien argitalpena onik ateratzen uzten hainbesteko grinaz saiatu zelako ere.

Italiara egindako bidaia amaitutakoan, 1808an, Savigny Landshut-era joan zen, eta, bi urte beranduago, egin berria zen Berlingo Unibertsitatera, zuzenbide erromatarreko katedra lehen planura eramateko Alemanian. Eman zitzaizkion sari eta omenaldiak alde batera utziko ditugu; ohorea, beretzat baino gehiago, eman zizkiotenentzat zela uste baitugu, eta 1842ra arte egin zuen lan zientifikoan ipiniko dugu arreta.

1814. urteak zirkunstantzietako idazki bat egiteko aukera eman zion Savignyri, eta historian agian bakarra den ondorioa sortarazi zuen. Domeinu frantsesak suposatzen zuen kanpo zamatik askatzeak, barne zama ere gainetik ken zitekeenaren ideia paraleloa sortu zuen espiritu askorengan, beste garai batean jaso genuen eta Alemaniako leku askotan kontserbatzen zen eta oraindik kontserbatzen den zuzenbide erromatarraren itxura zeukan barne zama. Bereziki Heidelberg-eko Thibaut aritu zen, beste zenbaiten artean, desira hau sutuki zabaltzen. Ez zen erraza iraganaren grabitazioan eta abertzaletasun asaldatuan oinarritutako, nazionalitatearen eta komenientzia praktikoen izenean eutsitako sentimendu honen aurka jartzea, hori egiteak benetako ospari betirako uko egitea suposatzen zuen eta. Savigny bere "*Gure denborak legegintzarako eta zuzenbidearen zientziarako duen bokazioa*" idazkian eman zuen pauso hau. Savigny nola edo hala legegintza nazional baten ideia geldiarazi zuela onartuko balitz, gehiegizko omenaldia eskainiko litzaieke une haietan Alemaniaren etorkizuna zuzentzen zuten indarrei; horrela ikusita, bere idazkia ez zen beharrezkoa, eta ideia horren edozein aurkarik sostengu hobea aurkituko zukeen Dieta Federala (*Bundestag*) hitz soilean, Savigny zientziaren sakontasunetatik ateratako oinarri guztietan baino. Egia esan, aurki diezaiokegu bere idazkiari esanahi hilezkorren bat emango liokeen izenen bat, nahiz eta izaera zirkunstantzialekoa izan: Eskola Historikoaren programa berak egin du. Utz iezadazue hitz batzuk gehiago esaten, idazkiaren esanahi iragankorrari buruz. Savignyren ustez, garai honek oraindik ez du Kode bat idatzi ahal izateko adina heldutasunik, eta zuzenbidearen finkapen eta kodeketa garaiz kanpo egitearen ondorioez ohartarazten gaitu. Hogeita hamar urte eskas geroago, Savigny Legegintzako ministro zen Berlinen. Denbora heldu bilakatu ote zen, ala Savigny ez zuen leialki jokatu bere usteekiko? Esan beharra dago Savigny garai hartako juristek oro har zabaldu zuten ikuskera zientifiko oso garai ez ipintzeko baimenduta zegoela, eta bere balioaren beraren aintzat hartze zuzenak garaiak beregandik zer ikasi bazuela –ez arlo isolatueta bakarrik, baizik eta bere iritzi eta kultura osotik– esateko baimena ematen zuen. Baina bokazio legegilea zehazteko neurri gisa kultura zientifiko erabiltzean, nire ustez, eta askori paradoxikoa irudituko zaion arren, Savigny frogatzen zuen bera zela legegilearen bokazioa interpretatzen zuena, historian adibideak falta ez diren modu batean, baina historia bera gezurtatzeaz arduratzen dena. Justinianok bere garairako beharrezkotzat jo zuen Kodeak –eta askok jarraitu dute bere adibidea, baita *Landrecht* prusiarrak ere– zientzia ez azaleko zerbait bihurtzea egia bada, eta, aldi berean, legegilea irakaslea izango bada eta Kodea laburpena, orduan Savigny arrazoi guztia zeukan bere garaiko zientzia ohore horretako kide izan zitekeen ideien aurka jarri zenean. Baina Kodeak Kode eraginkorrak izatera mugatzen direnean,

"Gure denborak legegintzarako eta zuzenbidearen zientziarako duen bokazioa"

Zesarrari Zesarrarena dena utziz eta zientziari berea dena, orduan, Erromako XII Tauletako historiak eta Karlos V.a enperadorearen heriotz auzitegiek erakusten diguten bezala, ez da hain kultura zientifiko handia behar Kode bat erabilkor bihurtzeko, teoria hutsari dagokion guztia baztertu egiten da eta. Bere egoera juridikoa berrantolatzeko edota besterik gabe bere zuzenbidea kodetzeko beharra sentitzen duen aro batek, baina, hala ere, zientifikoki behar adinako heldutasunik ez duela-eta besoak gurutzatuta gelditzen denak, ez du bere txirotasuna aitortzen; aitzitik, gehiegizko espiritu zientifikoa du, eta aditzera ematen duena ez da pobrezia zientifikoa, pobrezia morala baizik.

Zuzenbidearen
iturri buruzko
eztabaida

Horri buruz pentsatzen dena pentsatzen dela ere, ez dio inolaz ere aipatutako idazkiaren esanahi iraunkorrari eragiten, eta Savigny nolakoa zen jakiteko besterik ez du interes eta garrantziarik bere garaian planteatu zen kuestioaren aurrean nola ekin zuen jakiteak. Gaiak interes bikoitza du guretzat, Savigny eta Goetheren artean finkatu dugun parekotasuna dela-eta; zeren eta nork ez du somatzen Savignyngan Goethe orotarazten digun ezaugarri bat, honako hau alegia: bere denborarekiko agertu zuen objektibitate hotz hori, eta poz nazionalaren aurrean arrotz bat balitz bezala eta inolako interesik ez balu bezala jokatzea? Erabaki horren esanahi iraunkorraren oinarrian, Savignyk bere arerioen aurka bota beharreko ideien multzoa dago: zuzenbidearen izaera historikoari buruzko teoria bat –zuzenbidearen bilakaeraren historiarako garrantzitsuen diren zertzelada batzuekin batera–, ikuskera historiko modura ordurarte nagusi zen ikuskera arrazionalistaren kontrakoa. Azken honek zuzenbidea zientzia legegilearen produktu gisa besterik ikusten ez duen bitartean –hausnarketa eta ideien obra baten modura, zuzenbide bakoitza egokitasun eta perfekzioaren arabera neurtu behar dela esanez, guztiek bilatu behar duten objektu absolutuaren aurrean nazionalitateari faktore baimendu gisa muzin eginez–, historiak, ordea, zuzenbideak ez direla asmatzen erakusten du, baizik eta –lengoaia eta ohiturak bezala– eratu egiten direla, herriaren bizitza eta pentsamenduaren barne-barnetik sortzen direla, arrazoiak eta ezagutzak parte hartu gabe; zuzenbidearen jatorrizko iturria ez dela legegintza, ohiturazko zuzenbidea baizik; eta nazionalitatearen ideia ez dela justifikazio soil bat zuzenbide honentzat, aitzitik, ezin da zuzenbidearen fenomeno historikotik banatu. Dena den, juristen domeinua eta zuzenbide erromatarraren harrera –bi fenomeno hauek herriak zuzenbidea sortzeko zeukan partehartze hurbila guztiz galdua zegoen garaikoak izanik– zuzenbidearen ospaaren ideia honekin nola uztartzen diren, hori guztia eta beste gauza gehiago aipatu gabe geldituko naiz, artikulu hau ahalik eta lasterren hel dadin zuen eskuetara.

“Zuzenbidearen
Zientzia
Historikorako
Aldizkaria”

Savignyk baino lehen beste zenbait pertsonak ideia beretsuak azaleratu zituzten arren, bere meritua da horiek guztiak lehen aldiz funtsezko ikuskera zientifiko batean bildu izana, zientziari itxura zoragarri, argi, garden eta eder batekin eskainiz, ez diolarik laguntza kaskarra eman garaipen azkarra lortzeko orduan. Ikuskera honetatik abiatuz, eta zuzenbidearen arlo anitzetara hedatzeko asmoarekin, Savignyk, Eichhorn eta Goeschen germanistekin batera, organu propio bat eratu zuen 1815ean, “*Zuzenbidearen Zientzia Historikorako Aldizkaria*”, eta oinarritzko ikuspuntu bera zuten guztiak –hala nola, Eskola Historikoaren aldekoak– beren arerioei aurka egitera gonbidatu zituen. Azken hauei aurka egiteko plan bat prestatu zuen, erraza bezain alferrikakoa, zeren eta originalak aurkitu ahal izateko iragan mendera jo behar baitzen. Ekidinezina zen oraindik orduko zientziari esker bizi ziren ordezkari gehienek aurka zuzendutako eraso honek aurkakotasun eta haserrea sortzea, beste garai batean Goethek –bien arteko parekotasuna defendatzen darraigu– Schiller-ekin batera epigramen bidez (*Xenien*) bere garaikideen aurka hasitakoa bezala. Hasieratik ezatsegina zen borroka, berau hasi ahal izateko oposizioaren tirabira eta zorrotztasuna behar zirelako, eta denbora igaro ahala bere bultzada areagotu egingo zen, zeren eta, partiduen arteko borroka guztietan gertatu ohi den bezala, mota guztietako difamazio, kalumnia eta aurreiritziak nahasten ziren, kontraste penagarri honek gai pertsonaletan amaitzeko arriskua egonik; hainbestekoa, ezen aski baitzen Savignyngadik urrun egotea –pertsonalki nahiz literalki– bere arerio kontsideratzeko, eta beregandik gertu egotea Eskola Historikoaren aldekotzat jotzeko. Oso goraipagarria ez den partidu-borroka hau bere horretan uzten saiatzen naiz; alabaina, “Eskola Historikoa”-ri eta *Zuzenbidearen Zientzia Historikorako Aldizkaria*-ri dagokienez (*Zeitschrift für geschichtliche Rechtswissenschaft*), Savignyren obra handi guztietan errepikatzen den berezitasun bat aipatu beharra daukat: izenaren eta objektuaren arteko desberdintasun nabarmenaz ari naiz. Jada adierazi dut *Zuzenbide erromatarraren historia Erdi Aroan* obrari dagokionez; aurrerago, *Gaur egun-*

go zuzenbide erromatarraren sistema-ri buruz egingo dut; kanpoan utziko ditut Edukitzaren zuzenbidea –hor “zuzenbidea” obraren izenburuan soilik existitzen delako, liburuan zehar ez delarik ezertarako agertzen–, eta Zuzenbidearen Zientzia Historikorako Aldizkaria. “Historiko” hitzak, ikuskera politiko-historiko zehatz bat behar zuen izan programaren ondorioz. Horren justifikazioa, ikuspuntu pare batetik egin zitekeen arren (filosofiko-juridikotik eta historikotik), ez ziren behin ere lehen alderditik egiten saiatu, eta, egia esan behar bada, ezta bigarrenetik ere, aldizkariaren 15 liburukietan azaldu diren monografietako batean ere ez baita proposamen hori frogatzera zuzentzen den inolako argudiorik azaltzen. Zuzenbideko instituzioak ere denbora igaro ahala aldatu egiten direla jakinarazten diete oraindik ez zekitenei, baina aldaketa hauek ez direlarik arbitrarioki sortzen, iraganarekin loturarik izango ez balute bezala, ez zela legegilearen jakinduria soilik izan hauek sortu zituena; hitz batean, arerioek ezin dutela material historiko guztia berdintasun egoeran beraien aurka bezala erabili; puntu hauei dagokienez, monografiak ez dute inolako bermerik ematen. Programaren “ikuspegi historikoa”, aitzakia adore-emaile bat baino ez da aldizkarirako, aitzakia horren atzean ikerketa partzial historiko-juridikoak gorde zirelarik, ikuskera haren eraginik inolaz ere jaso ez zutenak.

Horregatik, ezin da azken ikerketen balioa gutxietsi, ezta Eskola Historikoaren meritua ere; aitzitik, bere izenez izendatzera ohituta gauden orientazioaren eraginpean –Savignyk baino lehen Hugo-k Gotinga-n (ikus 5. irudia) hasitakoa, baina lehenak eman ziolarik gailentasuna–, eragin horren pean, diot, jurisprudentziak autoritate guztiz desberdin bat lortu du 50 urteren buruan, erabateko eraldaketa ezagutuz, jurisprudentziaren historian zehar hain denbora gutxian halakorik gertatzea zaila delarik. Barkatuko didazue zertan datzan ez azaltzea; gehiegi aldenduko nintzateke Savignyngandik, eta galdera horri jurista bakoitzak erantzun diezaioke; beharko dio behintzat. Zalantzarik gabe, kritika bat egin behar zaio aintzatespenari, eta, joera honi guztiari eragiten dionez –eta inori baino lehen Savignyri– ezin dut aipatu gabe utzi. Teoria eta praktikaren elkar-aldentzea da, Savignyk berak aitortutakoa, Eskola Historikoa agertzearekin batera hartu zuelarik gertakari honek lehen aldiz halako neurria. Itsua behar du izan erantzunkizuna teoriarena ez dela dioena, baina teoriari esker lortutako garapena –praktikari on asko egin diona–, azkenaren interesen bat-bateko oharkabetasunarekin ez dela garesti atera ahazten duena ere itsua litzateke. Eskola Historikoari leporatu zaion beste gauza bat, bere jarrera politikoa da. Bere oinarrizko ezaugarriak kontserbadoreak izatea besterik ezin zitekeen espero, eta ezin zaio hori leporatu; historia ezagutzen dutenak kontserbadoreak dira beti. Baina joera politiko hark –kontserbadore izena gustora hartzen duena, eta iragana iraganagatik bakarrik mantendu nahiko lukeena– benetako kontserbadurimoarekiko –bilakaera kontserbatzeko ñjoera daukana, baina ez bilakaera beragatik, etorkizuneko bilakaera baten hazia delako baizik–, hildakoak baztertzen dituen kontserbadurimoarekiko daukan desberdintasuna da etorkizunari kendu egiten diola iraganari ematen diona: iraganaren eskubidea (*Recht des Werdens*), zeina interes praktikoen arabera zuzentzen denean –kontserbadorismo feudal edo aristokratikoaren kasuan bezala (*Junker-Conservatismus*)–, oso ulergarria gertatzen den; baina oinarri hori falta zaionean, ostera, kontserbadorismo erromantiko gisa jarduten duenean, orduan jakintsuaren bulegoko produktu ez oso zoriontsu bilakatzen da. Jakina da Eskola Historikoak azken joera honen alde jokatu duela, zeharka horren obrari ere lagunduz. Iragan organikoari buruzko teoriak –buruarinki hainbeste aldiz berritu dena, barrukoa kanpora bilakatzen dela aldarrikatzen duena eta iragan mendeko ikuskera historiko arrazionalistarekiko hain aurrerapen handia dena–, beste aldera desbideratzeko arriskua zeukan eta dauka, bereziki honakora: ez aintzat hartzea giza energiaren balioa nahiz garrantzia, eta hautamen askeak, hausnarketak eta borondateak historian duten papera, aipatutako teoriak gehiegizko garrantzia ematen dien hein berean. Eskola haren aldeko askorentzat, orban batez positiboki zigortuta dago giza jarduera, bilakaera historikoaren joanean kontzienteki eta hausnartuta eskuhartzea, gizadiaren eginkizuna besoak gurutzatuta egotea balitz bezala, etorri beharrekoa bilakaera moduan ekartzeko zain lotan egonik historia-
ren iratxoa, eta iraganean zerbait giza jardueragatik ez, baizik beste eraren batera “bat-batean jazo” izan balitz bezala. Teoriak historiaren ekintza onartzeko teoriak daukan ikara hau oso lagungarria izan zitzaien Berrezarkuntza garaiko asmo praktikopoliticoei, existitzen zena mantentzen saiatzen baitziren, eta gobernuentzat Eskola Historiko izena goxoa zen arren, herriaren moralari ezatsegina iruditzen zitzaien, onarpen eza honek eskolaren fundatzaileari eragin ziolarik batik bat.

Eskola
Historikoari
kritikak

“Gaur egungo zuzenbide erromatarraren sistema”

Edukitzari buruzko idazkia egin ostean, Savigny alde batera utzi zuen dogmatismoaren eremua bere literatur jardueran, eta historian bakarrik aritu zen; aski izan zen hori egitea, bere talentuaren aldeakartasunagatik edo bere joeragatik egin zuela esaten hasteko. 1840 urteak guztiz isilarazi zituen aurreiritzi horiek. Urte hartan, ikuskera zabala duen obra baten hiru liburuki azaldu ziren: “Gaur egungo zuzenbide erromatarraren sistema” obra –bizitza luze baten fruitua, denbora luzez heldutakoa–, mundu juridikoan benetako zirrara sortu zuena. Esan beharra dago giro batzuetan zioten mirespen itzela ez zela jende guztiaren aldetik eman, ez baitziren atsekabea adierazi zutenak faltatu, praktikoen artean batez ere. Obrari arrazoi guztiarekin lepora zitzaiokeena, ezarri zion “gaur egungo zuzenbide” izenburuaren eta edukiaren arteko desadostasuna zen; baina ez Savigny zuzenbide erromatarraren zati hilak berpiztu eta indarra emateko egin zuen ahaleginagatik –zuzenbidearen historialariarengandik espero zitekeen bezala, eta bere jarraitzaile askok egin bezala–, baizik eta, aitzitik, ordurarte berekiko zuten irudiarekin alderatuz, harrigarria zelako irakaslea bere jarraitzaileen desbideraketa honetatik hain urrun nola mantendu zen ikustea, ia beste muturrean ipiniz, bere aurkari askoren parean, zeintzuei praktiko deitzen baitzitzaien, historialari ez zirela argi zegoen eta. Hala ere, gaitzespen horrek bazuen justifikaziorik: Savigny azkenean beti gaur egungo zuzenbidera etortzen bada ere, ez du beti luzea den zuzenbide zaharraren bidea laburtzen –ez beretzat, ez irakaslearentzat–, ezta horrek ulermena errazteko inolako erabilkortasunik ez duenean ere (adibidez, teoria bati buruzko azalpen historiko zehatz batzuk gaur egungo zuzenbiderako balio guztia galdu dutela ondorioztatzen denean). Gaitzespena ongi ulertu nahi bada, ez da esan behar obra izenburuarekin bat ez datorrenik, baizik eta izenburua ez datorrela obrarekin bat; horrela adierazita, galdu egiten da obrak eskaintzen duena.

Savigny eta Goethe

Utz iezadazue azken honi dagokionez hitzik ez esaten. Bitartean, nork itxaro du Savigny bezalako gizon batengan merituak ikustea, hain zuzen horiek ez balitu ez litzatekeenean Savigny izango? Hala eta guztiz ere, xehetasun bat azpimarratu beharra daukat, hori faltatuta ere nabarienetarikoa izango ez zatekeen arren. Gorago aipatu dugun berbera da (legegintzaren arazoari buruz zeukan jarrerari buruzkoa), zeinari buruz berriro ere tematu behar dudana, ezinbesteko ezaugarri bat ematen baitugu Savignyren izaera irudikatzeko. Naturen artean argi asko azaltzen da aniztasun aurkajarria, gure literaturaren historiak modu ideal batean Schiller eta Goetheren bitartez erakusten diguna. Bietako batek bere indar guztiarekin jotzen du materiara, inolako ezbairik gabe eskaintzen dio bere burua, maitasunean bezala, eta sentimendu horri esker, liluratzen duen bultzada eta inspirazioa adierazterakoan, materiarekin bat egitea eta identifikatzea lortzen du; dakizuen legez, Schiller zen izaera honen goi adierazpena. Beste izaera ez du materiak zurgatzen, baizik eta materiaren gainean mantentzen da; ez du materiak azpiratzen ezta zeharkatzen ere; aitzitik, askatasunez azpiratzen eta modelatzen du, artistari buztinarekin gertatzen zaion bezala, eta horrela, bere eskuetatik ateratzen den obra ez da egilearen ispilu, objektiboki aurkezten da, izadiak sortu izan balu bezala. Azken mota honetakoak dira bai Goethe eta baita Savigny ere. Halaxe ematen du aditzera gorago aipatu dugu obrak, batez ere horretaz konturatu nahi dutenentzat. Materia bere interes eta sentimenduetatik guztiz aldentua egongo balitz bezala, Savigny materiari gainjarri egiten zaio; materiari buruzko iritzia kanporatzen duena ez da subjektua, baizik eta materia bera da pentsamenduaren itxura hartzen duena, itxura objektibo hori, non espiritu subjektibotik aldentzen den bakarra ez den berriki bilatu eta aurkitu dena, baizik eta heltze intimo eta pixkanakakoaren prozesu luzea ezagutu duena, eta, ondutako fruitua bezala, jabeak hartu baino lehen zuhaitzean aspalditik zegoena, borroka eta ahalegin subjektiboetatik urrun. Savigny materiarekiko zeukan independentzia hau, zuzenbide erromatarraren aurrean zeukan jarrera kritikoa atzematen da bereziki. Zuzenbide erromatarrarekiko zeukan lilurak ez zuen –erromanistei gertatu bezala– bere sena esklabotu, eta zerbait gertatu izate soila ez zaio nahikoa iruditzen, zuzenbidearen uesteko historialari esklusiboarengandik askok pentsatu izan zezaketen bezala; berak zergatia ere bilatzen du, ez kanpo zergatia bakarrik, baizik eta erakundearen helburu eta funts praktikoa dagoen zergati intrintsekoa. Hori dela-eta, jurista praktikoaentzako trebakuntza bide bat da obra hau, zentzu praktikoa batik bat, nahiz eta materia zuzenean gutxi kopiau erabilera praktikoaentzako pentsaturiko moduan.

Savigny ministro

Mundu juridikoak obra honen lehen liburukiaren aurkezpenari egindako harrera beroak –niri, gizon gazte bezala, sortu zidan inpresioa azaltzeko, beste espresio batzuk

erabili beharko nituzke— ez zuen asko iraungo. 1841ean bi liburuki gehiago agertu ostean, bere jarraitasuna itxura guztien arabera denbora askorako, edo agian betirako, oztopatuko zuen gertakari bat jazo zen. Zuela gutxi tronura igo zen Prusiako errege Federiko Gilen IV.ak, Savignyren babesle eta miresle izana, legegintzako ministeritza berezi bat sortu zuen honen onerako, eta 1842ko Bazkoan sartu zen Savigny bertan, aurreko neguan Pandekten kurtsoa azkenekoz eman ondoren. Kanpoan zeukan ospari dagokionez, Savignyren bizitza Goetherenaren modu berekoa zen. Baina Goetheri bere kanpo ohorea pixka bat handitu besterik egin ez zionak, bere genioari ezertan eragin ez ziolarik, Savignyren kasuan, berari nahiz jurisprudentziari beti damutuko zaien salneurria suposatu zion; patuak ideientzat espero zen ondorioa hainbestetan ukatzen dien askoren artean —Federiko Gilen IV.a erregearen espiritu pizgarria benetan aberatsa zen ideiei zegokionez—, hauxe bai izan zela ondorioz negargarrietarikoa izan zuena. Legegintza Ministeritzan sartu-aterak elkarren atzetik egin zituzten lankideen esanetara joz gero, argi ikus daiteke askoz ere gaituagoak zeuden pertsonalitateekin topo egiteaz gain, Savigny 6 urtez egindako jardueraren emaitza ez zela eta ez dela beste inon galdutakoaren mailara iritsiko. Zer-nolako esanahia zeukan Ministeritza hark Savignyrentzat, segalaria uzta garaian itzularaztea ez bazen, bizitza guztian zehar erein eta landutakoa jasotzeko prest zegoen unean, berarentzat soilik izan zitekeen aparteko uzta batetik banatu zuelarik, zeukan adinagatik denbora tarte motz bat besterik ez zekanean bere eginahalak horri zuzentzeko? Ministeritza hori onartzeak, berriro ere atxurra hartzeko igitaia lagatzea suposatzen zuen, urrezkoa izan arren gutxi egingo zuena 63 urteko gizon baten eskuetan.

Hauxe da Savigny betirako abandonatuko duen bere katedran ikusteko azken aukera. Esana dugu bere katedra lehen planura eraman zuela Alemanian; beregandik aldendu orduko, garbi asko ikusi zen beregatik zela katedra hori zen bezalakoa. Ordurarte Europako ia herrialde guztietatik etorritako ehundaka ikaslek lekuri apenas aurkitu zuten gelan, non Puchta eta geroago Keller egon ziren, lekua soberan zegoen orain; Savignyren garaian entzuleak *aulki* bila ibiltzen ziren, eta orain, aldiz, aulkiak entzule bila zebiltzala zirudien. Savigny irakasle gisa izandako ospea, idazle gisa izandakoa baino handiagoa zen ia; hala ere, katedratik aldendu baino lehen sarritan entzuteko aukera izan nuen, eta aitortu beharra daukat ez zela nik egina neukan irakaslearen irudira egokitzen, Stahl-en guztiz gauzatua ikusi nuenera. Hori bai, Savigny haren bereizgarri ziren ezaugarri guztiak zeuzkan: Goethek bezala, kanpo itxura aparta zeukan —diotenez, aurreko urteetan edertasun bat zen, Goethe bezala— eta ahotsa ez zia, ozena, urrutitik esfortzurik gabe entzun zitekeena; ziurtasuna, duintasuna, irmotasuna azalpenetan, bere ezpainetatik irteten zen guztia ebangelioa bailitzan iristen zen auditoriora. Baina zerbait falta zela somatzen nuen nik, Stahl-ek soberan zeukana eta agian Savigny bere gaztaroan izan zuena: azalpenen beroa, irakasleak bere lanean eta aztertzeko duen gaian duen interesetik eratoritzen den beroa. Savignyren hitza lasaia, moderatua zen; erreka lautadan bezala irristatzen zena, gardena, hondoraino garbia, inolako mugimendu ezohiko edo gogorrik gabea, bor-bor egin gabe, apartik sortu gabe, mendiko errekekin gertatu ohi den legez, entzulea murgildu eta pozak hartzeko gai dena. Objektibotasun hori zen, berriro ere —Savignyri idazle gisa jada somatutakoa—, irakaslearen ezaugarri nagusia, zeina, nire ustez, ez zen planu horretan gazteriarako oso aproposa, behintzat “jurista berri”-en aurka zeukan joeragatik; jurista berri horiek taldean eta izen zehatzik gabe aurkezten zituenean, ezta banaka ere, erruki sentimendu bat sortarazten zuen auditorian, oker txar eta ekidinezin baten ordezkariak bailiran ikustera bultzatuz.

Ministeritza onartu osteko lehen sei urteak, gure zientziari *Sistema* bukatzea eragotzi ziotenak direla esan daiteke, zeren eta aurrez Savigny urtero 2 eta 3 liburuki egiten zituen bitartean, 1847an bere isiltasunetik atera eta seigarren liburukia argitaratu zuen. Hurrengo urtean, Ministeritza uztean, erabateko aldaketa batek idazteko grina itzularazi zion, ia hirurogeita hamar urte zituenean, ordea. Dena den, Goetheren kasuan bezala, indar hau nahikoa izan zen idazlearen obra egiteko; 1853ra arte lan haren lau liburuki kaleratu ziren, azken biak obligazioen zuzenbidea izenburu bereziarekin, autoreak bere obra amaitzeko itxaropena galdu zuenaren adierazle. Azken bi liburukiak galtzen ari zen indarraren zantzuak zeuzkatzen, eta Savignyren abilezia eta ezagutza aski frogatuta gelditu ziren munduari bera zahartzen ikusten utzi ez zionean.

Savigny
irakasle

Horrela, lasai igaro zituen bere bizitzako azken urteak; bere egunak bukatu baino lehen atsedean hartzeko denbora izanik, berrogeita hamar lanurteko iraganeko esfortzuen ondoren. Atzera begiratzean ikusi zuen patuak aukeratutako gutxi batzuei bakarrik eskaintzen dien bizitza izan zuela, Weimar-ko printze poetak bezalako bizitza, hasieratik zoriontasunaren eguzkiak argizatua, egonezin eta kezkarik gabeko bizitza, non zoritxarrak ez zuen ia itzalik ere egin; botere, lan, poz eta ohoreetan aberatsa, historiaren liburuan betirako idatzia, indar espiritual eta fisikoz betea, eta aparteko kasuetan soilik irits daitekeen mugetaraino hedatu zena.

Mundutik horrelako tasunak dituen gizaki bat joatean, ez da harri nahiz brontzerik behar bere izena etorkizunera luzatzeko. Eta, hala ere, aukera hau Savignyri bere jaioterri den Frankfurten monumentu bat egitearen ideia bultzatzeko badarabil, batik bat bere juristei kontuan har dezaten gomendatzen badiet, Goethez gain halako gizon bat sortu izanagatik goresgarria den hiriak brontzezko hizkietan aldarrikatzeko interesa eduki behar duelako da; horrela, gorespen hori merezi duela aditzera emateko, eta bere oparotasun materialak ez duela handitasun espiritualaren zentzua bertan itoko, baizik eta, aitzitik, merezi duten bezala ohoratzeko balio diola.